348 zenbakia. 1998ko abenduaren 18a. JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

# Berrigara



# EEERREALA!!

## Bergara eta Reala bateginik

OPEL

TALLERES OLA
Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).
Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

Zubieta 5-7, posta kutxa 9, 20570 Bergara.
Tf. 943 76 11 21, faxa 943 76 06 75, mobila 989 76 11 21

# BICIPRECISIÓN IGARTUA









Exijitu etiketa eta bertoko behi-okelaren bermea izango duzu, naturala eta kalitatekoa.



EUSKO LABEL
KALITATEA

EUROPAKO ELKARTEAREN PARTAIDETZAREKIN FINANTZATUA




Labeldun okelen salmentan duten espezializazio maila handia dela eta, ikur honekin (▶) adierazitako Haretegi Baimenduek ARTISAU ERAKO HARATEGI ESPEZIALIZATUEN sailkapena dute Kalitateko Eusko Labela duten produktuetan

**ANTZUOLA**

▶ MUJIKA HARATEGIA
Kalebarren, 1

▶ GABILONDO HARATEGIA
Kalebarren, 14

**BERGARA**

▶ CARNICERÍA JON LETURIA
Pedro Deuna, 24

▶ CARNICERÍA URZELAI
Ibargaray, 16 Bajo

▶ CARNICERÍA ANDRÉS MUJIKA
Domingo Irala, 5

BIXAIN HARATEGIA
Azoka Plaza Pto., 5-6

**SORALUZE-PLACENCIA**

JAVIER ALBERDI HARATEGIA
Rabal, 24



# Non dago Berri Ona?

**Xabier Azkoitia** / Apaiza

Gabon eguna gainean dugu. Dendak jakiz beteta, jostailu dendak Olentzerori begira, kaleak argiz betetzen hasiak, den-denoi desio ona luzatuz: zorionak!.

Dirudienez, asmo hori betetzeko bidean gaude, eta horretarako hainbat urrats ematen ditugu zorion zati hori lortu nahian. Aurrenengo gauza oporrak hartu, atsedena ona baita; mahai beraren inguruan elkar banatuko ditugun janak eta edanak erosi, prestatu eta familiarekin ospatu; elkarri opariak egin, ematen jakitea ona baita eta jasotzen ikastea ere bai. Adiskideekin, familiarekin, gozatu, horrelako gauzak zoriontsu egiten gaituzte, dirudienez.

Aurten ere loterian botatakoa tokatuko zaidala badakit, ez baitut jokatu. Baina ziur naiz; eguerdi alderako Osasunaren eguna izango dugu: "inportanteena osasuna da" esango diogu elkarri. Baina, a ze gustora hartuko genukeen astebeterako gripea!. Trukean hogei mila duro hartuko bagenu, noski!.

Ahaztuta nuen, hau da burua nirea! Gabon kantak, atez ate, txapela pasatzea ahaztu gabe. Umeek alaituko dizkigute Gabon bezperako orduak. Urte Zahar eguna, mahatsak, banaka, binaka irentsiz. Gero irentsiko direnak ez ditut aipatu ere egin nahi. Erregeak, Elosuko Bentatik behera. Beste ume piloa. Jostailuak, helduak eta umeak irribartsu. Den-denok zoriontsu. Gu zoriontsu, zu zergatik ez?

"Aintza zeruetan Jainkoari, eta Bakea lurrean Haren gogoko gizonei" izan omen zen aingeruak artzainei zabaldu zien mezua. Hiritik kanpora atera zituzten Maria eta Jose, umeari ez zioten utzi hiri barruan jaiotzen. Dena beteta zegoen, Berarentzat ez zegoen lekurik. Ez zioten utzi jaiotzen beraien artean maitasunaren legearen sortzaileari; ez zioten utzi beraien artean jaiotzen elkarri beti barkatu egin behar diogunaren erakusleari; ez zioten utzi beraien artean jaiotzen egiak aske egiten gaituela esaten zuenari; ez zioten utzi gaixo, baztertu, emakume, pekatari, ezjakin eta indargabetu guztien alde aukera egin zuenari, ez zioten utzi beraien artean jaiotzen Jaungoikoa Aita maitagarria dela erakusten digunari.

*"Zoriontsuak,*
*umilak dira, bake egileak,*
*bihotz gozokoak,*
*negar egiten dutenak*
*eta hiritik kanpo*
*bizi diren beste asko"*

Orain dela bi mila urte ez zioten beraien artean jaiotzen laga, eta Berri Ona hiritik kanpo zeuden beste batzuei eman zitzaien. Auskalo hiri barruan bizi garenok aurten ere izango ote dugun lekurik gure artean jaio dadin, trastez, katxarroz eta antzeko gauzez beterik izan baititzakegu gure barrenak eta ametsak. Beraz, ez gara ohartuko zoriontsuak umilak direla, bake egileak, bihotz gozokoak, negar egiten dutenak eta hiritik kanpo bizi diren beste asko.

Nork jarri ditu hiritik kanpo behartsuak, espetxeratuak, langabetuak, gaixoak? Nork jarri du Europa eta Ipar Ameriketako harresietatik kanpo Hirugarren Mundua? B

## barruan



**Luis Uranga**
Realeko presidentea

***"Gaur egun ultra taldeekin dagoen permitibitatea bukatu beharra dago"***

9. orrialdean.



**Ruper Ordorika**
Kantaria

***"Azken diskoa egunetik egunera gehiago saltzen ari da; etengabe doa gora"***

27. orrialdean.



**Antolin Marchena**
Bildumazaleen elkartekoa

***"1976an, gure alaba jaio zenean, ekin nion txanponak eta seiluak biltzeari"***

29. orrialdean.

# orain dela...

**BERGARAN GERTATUA**

***1950.*** Abenduaren 21ean Donostiako Groseko frontoian laukoteen txistulari txapelketa jokatu zen. Bergararrak izan ziren garaile. Bonifazio Laskurain, Joseba Laborda, Julian Etxaniz eta Matias Azkaratek osatu zuten Bergarako laukotea.

**EUSKAL HERRIAN GERTATUA**

***1973.*** Abenduaren 20an ETAk eginiko atentatuaren ondorioz Carrero Blanco hil zen.

***1979.*** Abenduaren 15ean Jose Maria Leizaola Lehendakaria atzerrian, Bilbora heldu zen.

***1983.*** Abenduaren 14an GAL erakundeak ekintza armatuei ekin zien, Hendaian Segundo Marey bahituz.

***1985.*** Abenduaren 15ean Endarlazan, Bidasoako uretan, Mikel Zabaltzaren gorpua aurkitu zuen Goardia Zibilak.

**MUNDUAN GERTATUA**

***1903.*** Abenduaren 17an hegazkin motordun baten lehen hegaldia.

## zozketak

**BONO LOTO**

**Eguakitza 11**
7-15-26-27-34-48 (osag.22/er.3)

**Astelehena 14**
1-2-5-13-43-46 (osag.31/er.3)

**Martitzena 15**
7-8-9-10-21-24 (osag.4/er4)

**Eguaztena 16**
9-13-21-39-44-46 (osag.41/er.4)

**PRIMITIVA**

**Zapatua 12**
8-13-18-32-34-44 (osag.3/er.9)

**Domeka 13 *Gordoa***
11-17-21-28-36-43 (osag.5/er.4)

**ONCE**

**Eguakitza 11:** 42.917 (K. seriea: 012)
**Astelehena 14:** 55.847
**Martitzena 15:** *39.329*
**Eguaztena 16:** 81.940

## Eguraldia

*Igeldoko metereologi behatokia*

Eguraldiak okerrera egingo du eta zapatu eta domekan hodeiak nagusituko zaizkigu zeruan. Tarteka euria egingo du eta domekan 800 metrotik gora, elurra. Tenperaturak behera egingo du. Haizeak iparretik joko du.

## Ilargiaren aldiak

Ilberri: abenduak 18
Ilgora: abenduak 26
Ilbete: urtarrilak 2
Ilbehera: urtarrilak 9

## Eguzkia

*Domeka, abenduak 20*

Sortu: 08:36
Gorde: 17:57

## Tenperaturak eta euria Bergaran

*Luis Mari Agirre*

| | max. °C | min. °C | *euria l/m²* |
|---|---|---|---|
| **Eguena 10** | 14 | 6 | *3,1* |
| **Eguakitza 11** | 12 | 9 | *17,1* |
| **Zapatua 12** | 16 | 10 | *0,2* |
| **Domeka 13** | 16 | 6 | *0,2* |
| **Astelehena 14** | 15 | 5 | *0,3* |
| **Martitzena 15** | 12 | 1 | *0,2* |
| **Eguaztena 16** | 9 | 2 | *0,2* |

# bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

**Añube**

Eguzkiak jotzen ez duen parajea. Laiotza.

*- Mendikute basarrixa benetan paraje añubian dago.*

*- Etxia eitteko, añubia baiño euzkibegixa hobe.*



JOSU OKINA

## Farmaziak

**Eguakitza 18:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63*

**Zapatua 19:**
MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*

**Domeka 20:**
MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*

**Astelehena 21:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74*

**Martitzena 22:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*

**Eguaztena 23:**
GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05*

**Eguena 24:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63*

## Ogia

**Domeka 20:** Ogizun.

## Telefonoak

| | |
|---|---|
| **OSASUNA / LARRIALDIAK** | |
| SOS deiak | 1[illegible] |
| DYA | 943 78 71[illegible] |
| Gurutze Gorria | 943 76 55[illegible] |
| Larrialdiak | 943 46 11[illegible] |
| Anbulatorioa (txanda) | 943 76 24[illegible] |
| Anbulantzia | 943 55 49[illegible] |
| Udaltzaingoa | 943 77 91[illegible] |
| Ertzaintza | 943 76 53[illegible] |
| Suhiltzaileak | 943 78 28[illegible] |
| Osasun Etxea | 943 76 24[illegible] |
| Arrasateko ospitala | 943 79 53[illegible] |
| Asepeyo | 943 76 16[illegible] |
| Pakea | 943 76 13[illegible] |
| Angiozarko medikua | 943 78 90[illegible] |
| Antzuolako medikua | 943 76 62[illegible] |
| **GARRAIOAK** | |
| Euskotren | 943 45 01[illegible] |
| PESA | 902 10 12[illegible] |
| Taxiak | 943 76 19[illegible] |
| RENFE | 943 28 35[illegible] |
| **UDALA** | |
| Udaletxea | 943 77 91[illegible] |
| Udal Artxiboa | 943 77 91[illegible] |
| Igerilekuak | 943 76 20[illegible] |
| Kultur Etxea | 943 77 91[illegible] |
| Liburutegia | 943 77 91[illegible] |
| Mizpirualde Egoitza | 943 76 13[illegible] |
| **BESTELAKOAK** | |
| Epaitegia | 943 76 14[illegible] |
| Erregistroa | 943 76 13[illegible] |
| Jardun | 943 76 35[illegible] |
| Jubilatuen Etxea | 943 76 21[illegible] |
| Postetxea | 943 76 26[illegible] |



**Ariane Alberdi**
Abenduaren 10ean 12 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta Irati eta Iker.



**Izaskun Arriola**
Abenduaren 12an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Eider Domenech**
Abenduaren 19an 16 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Sandra Lopez**
Abenduaren 11n 13 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



**Jon Marzo**
Abenduaren 14an 30 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Onintza Oteo**
Abenduaren 10[illegible]
17 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.

# zorion agurrak



**Aitor Zengotitabengoa**
Abenduaren 13an 4 urte. Urte askotarako! Denon partez.



**Marta Castro**
Azaroaren 25ean urtebetetzea. Urte askotarako! Koinata-koinatuak eta amama.



**Irati Elorza**
Abenduaren 8an urtebete. Urte askotarako! Etxekoak.



**Irati Cuevas**
Abenduaren 13an 9 urte. Urte askotarako! Gurasoak, Iria, Elene eta Peio.



**Dorleta Narbaiza**
Abenduaren 13an 3 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Gotzon Bikuña**
Abenduaren 12an urtebetetzea. Urte askotarako! Denon partez.



**Lide Madinabeitia**
Abenduaren 19an 3 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Ana Mari**
Abenduaren 12an urtebetetzea. Urte askotarako!



**Marije Olabarria**
Abenduaren 16an urtebetetzea. Urte askotarako! Poliko lagunak.



**Fran Ruiz**
Abenduaren 3an 34 urte. Urte askotarako! Familiakoak.



**Kontxi Aranguren**
Abenduaren 8an urtebetetzea. Urte askotarako! Familiakoak eta etxekoak.



**Francisco Jose Moreno**
12an 40 urte. Urte askotarako! Emaztea eta alabak.



**Pedro Arroyo**
Abenduaren 8an urtebetetzea. Urte askotarako tio! Erik eta Amaia.



**M. Luisa Arando**
Abenduaren 7an urtebetetzea. Urte askotarako amama! Erik eta Amaia.



**Iosu Laskurain**
Abenduaren 15ean 11 urte. Urte askotarako! Aitor, ama eta aita.



**Alaitz Jauregi**
Abenduaren 20an 23 urte. Urte askotarako! Koadrila.



**Kristina Souto**
Abenduaren 22an 4 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta koadrila.



**Antonio Delgado**
Abenduaren 17an 50 urte. Urte askotarako! Familiakoak.



**Idoia Madinabeitia**
27an 6 urte. Urte askotarako! Lorea eta etxekoak.



**Andoni Rodriguez**
Sekula baino gaztiao zae. Zorionak, 150 urtian holaxe! Anai-arrebak eta Jone.



**Gorka Diaz**
Abenduaren 19an 7 urte. Urte askotarako! Familiakoak.



**Urko Sarobe**
Abenduaren 27an urtebete. Urte askotarako! Etxekoak.



**Ainhoa Molpeceres**
Abenduaren 23an 2 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta Julen.



**Jabier Gonzalez**
Abenduaren 17an urtebetetzea. Urte askotarako! Gurasoak, arreba eta neska.



**Jaione Etxaniz**
Abenduaren 22an urtebetetzea. Urte askotarako! Enara.



**Enara Alberdi**
Abenduaren 29an 6 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta lagunak.



**Jabier Agirreolea**
Abenduaren 16an urtebetetzea. Urte askotarako! Amaia eta Gorka.



**Asier Laria**
Abenduaren 30ean 4 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Itziar Morillas**
Abenduaren 27an urtebetetzea. Urte askotarako! Niko eta Kike.



**Endika Losada**
Abenduaren 31n urtebetetzea. Urte askotarako! Neskak maitasunez.



**Naroa Odriozola**
Abenduaren 19an 9 urte. Urte askotarako! Familiakoak.



**Olaia Alberdi**
Abenduaren 16an 16 urte. Urte askotarako! ELJ lagunak.



**Virginia Fernandez**
Abenduaren 22an 19 urte. Urte askotarako! Familiakoak.



**Gorka Gonzalo**
Abenduaren 26an 2 urte. Urte askotarako! Gurasoak.

## URTEURRENA

### Juantxo Castelo Pecos

Lehen urteurreneko meza domekan, abenduak 20, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## URTEURRENA

### Saturnino Agirrebeña Uribetxeberria



Lehen urteurreneko meza domekan, abenduak 20, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

*Zorion agur gehiago 8. orrialdean*

## hildakoak

**Jose Umerez Guridi**
Abenduak 10, 86 urte

**Felipa Gantxegi Lizarralde**
Abenduak 14, 81 urte

**Juan Agirrebeña Mujika**
Abenduak 15, 74 urte

## jaiotakoak

**Julen Azkarate Iztueta**
Abenduak 8

**Maite Gallastegi Etxaniz**
Abenduak 9

# ANTZERKIA

▶ **"Divinas palabras"** Atalaya Teatro taldearekin gaur, eguakitza, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan.

▶ **Lakrikun** taldearen "Ez dira berdinak, antzekoak baizik" lana bihar, zapatua, 21:30etan Azpeitiko Zelaitxon.

▶ **Txan Haundiarekin magia saioa** domekan 22:00etan Soraluzeko Gaztelupe tabernan.

# MUSIKA

▶ **Ruper Ordorika** gaur, eguakitza, 22:00etan Jam-en.

▶ **Arima Beltza, Zup, Borrokan eta Petti** taldeak gaur, eguakitza, 22:30etan Pol-Polen. "Egingo dugu" plataformak antolatuta.

▶ **Marta Campos** kantautore kubatarra domekan, 20:00etan Pol-Polen. Komite Internazionalistak taldeak antolatuta.

▶ **Mikel Telleria** kantaria eguaztenean, hilak 23, 22:00etan Soraluzeko Gaztelupe tabernan.

MUSIKA

## *Gabonetako kontzertua*

**Noiz: bihar, zapatua, 22:30etan**
**Non: Udal Pilotalekuan**
**Sarrera: 1.000 pezeta (700, langabetu txartelarekin edo Gazte Txartelarekin)**

Gabonen atarian ohizkoa bihurtu denez, Bergarako musika taldeek kontzertua eskainiko dute bihar gauean Udal Pilotalekuan; bide batez, Udazken Kulturaleko programazioari amaiera emango zaio. Biharkoa Gabonetako kontzertuaren 19. edizioa izango da. Kontzertuari hasiera emateko, Udal Musika Bandak Waignein konpositorearen "Diagram" izenburuko pieza joko du Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean eta jarraian Imanol Urzelaik zuzentzen duen Aritzeta abesbatzak ondoko lanak abestuko ditu: "Barcarola" (Corona), "Axuri beltza" (Busto), "Meu coraçao" (De Barros), "Deep river" (Ringwald) eta "A merry Christmas" (Warrell). Ondoren, Bergarako Orkesta Sinfonikoak, Gonzalez Chirlaqueren batutapean, Leonard Bernstein-en "Candide" Operako suitea interpretatuko du. Orfeoiak, berriz, Musika Eskolako metal eta perkusio taldearen laguntzaz, "Bi Gabon kanta" (Sarasola eta Azurza), Arch konpositorearen "Swing low, sweet chariot" eta "Down by the riverside" lanak, David Azurza Orfeoiko zuzendariaren "Urte berri berri" eta, azkenik, Gardner-en "Tomorrow shall be my dancing day" kantak abestuko ditu.

Ohiturari jarraituz, talde guztiek elkarrekin lan bat interpretatuko dute. Aurten, jendearen eskaerari erantzunez, Ennio Morricone-ren "The Mission" filmeko soinu banda izan da aukeratutakoa. Orkestak 1991ko Gabonetako kontzertuan estreinatu zuen lan honek erlijio-musika eta Amazonia aldeko doinuak tartekatzen ditu. B



Zapatuan ere jende ugari bilduko da frontoian.

# LEHIAKETAK

▶ **Amodiozko Gutunen VII. Berrigara Lehiaketa**.1984an edo lehenago jaiotako edozein pertsonak har dezake parte. Lanen luzera ezin izango da bi orrialde baino gehiagokoa izan. Irabazleak 75.000 pezeta eskuratuko ditu, bigarrenak 40.000 eta bergarar onenak 25.000 pezeta. Lanak emateko azkenengo eguna 1999ko urtarrilaren 13a izango da. Argibideak: 943 76 36 61.

▶ **Bergarako Orkesta Sinfonikoak anagrama lehiaketa** deitu du. Bergarako edozeinek parte hartu ahal izango du. Irabazleak 25.000 pezeta jasoko du. Lanak DIN A4 edota DIN A3 orrietan jasoko dira urtarrilaren 29ra arte Banda eta Orkestaren entsaio gelan (Musika Eskola. Espoloia, z/g. 2057 Bergara).

ARTISAUTZAKO IZOZKIA
GOXO-TOKI
Irala 3. Tf. 943 76 12 35
Matxiategi 34. Tf. 943 76 23 37
BERGARA



KORTA-ZAR
Txokolategia
Pintxo eta ogibitartekoen espezialitatea
Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

ileapaindegia
eder gela
disdira
Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55

▶ **HIES Ekimena** taldeak "HIESa edo sexu segurua" gaiaren inguruko komiki lehiaketa deitu du. Lanak entregatzeko epea martxoaren 1ean bukatuko da. 943 76 26 99.

## DEIAK

▶ **Mariaren Lagundia** Ikastolako 3. mailako ikasleek gurasoei zuzendutako jaialdia astelehenean, hilak 21, 18:30etan Ikastolan.

▶ **Komite Internazionalistak.** Mitch hurakanaren ondorioz Nikaraguan duten egoerari buruzko diaporama eguaztenean, hilak 23, 19:30etan Kultur Etxean eta 22:00etan Pol-Polen.

▶ **EAJren ez-ohizko Uri Batzarra** egingo da Batzokian eguaztenean, hilak 23, 20:00etan. Uri Buru Batzarrak dei egiten die bere alderdikideei batzarrera agertu daitezen.

▶ **Amnistiaren aldeko Olentzeroa.** Eguenean, 8:00etan irteera Zabala jatetxetik eta 15:00etan bazkaria Artatsen (txartelak Arranon eta Pol-Polen salgai). Entsaiuak astelehen, martitzen eta eguaztenean 19:30etan Pol-Polen.

▶ **Senideak** taldeak eta **Jose Mari Etxaniz**en aldeko plataformak enkartelada egingo dute eguenean 19:00etan Plazan. Kalean abesten arituko diren taldeei 19:15etan Plazan elkartzeko dei egiten zaie, elkarrekin kantatzeko.

▶ **Aranzabal Lagunarteak** dei egiten du domeka eguerdian Aitor Zabaletaren omenaldira joateko. Autobusak 10:30etan aterako dira Frontoitik.

## OHARRAK

▶ **Mariaren Lagundiak**, 1999an ospatuko duen 200. urteurrenari begira antolatutako ekitaldien artean, argazki erakusketa egin nahi du. Ikastetxearekin zerikusia duten argazkiak dituztenei erakusketan laguntzeko dei egiten zaie.

▶ **Ertamerikarako laguntza:** Oscar Romero solidaritate batzordeak eta Komite Internazionalistak taldeak Banco Guipuzcoanon eta Euskadiko Kutxan kontu korronte bana ireki dute.

## KINTADAK

▶ **1976**an jaiotakoen bazkaria hilaren 26an Antxonin. Izen-ematea Antxonin abenduaren 24ra arte.

▶ **1975**ean jaiotakoen bazkaria urtarrilaren 9an Zabala jatetxean. Izen-ematea (2.500 pezeta) Kutxako 01.2249862.9 kontu korrontean zenbakian abenduaren 30era arte.

## Z I N E A

**KARTELDEGIA**

**BERGARA. Novedades**

**Ronin**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

**Algo pasa con Mary**
Eguena: 17:00.

**ARRASATE. Alai zinema**

**Los miserables**
Eguakitza: 22:00.

**Un crimen perfecto**
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 22:00.
Martitzena: 17:00, 19:30, 22:00.
Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

**Las aventuras del principe valiente**
Zapatu: 17:00
Domeka: 17:00.

**EIBAR. Unzaga**

**Halloween, 20 años despues**
Eguakitzatik eguaztenera bitartean, ikuslearen eguna: 22:15.

**Mulan**
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00, 19:30.
Astelehen, martitzen eta eguaztena ikuslearen eguna: 19:30.

**EIBAR. Rialto**

**Algo pasa con Mary**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

**ELORRIO. Arriola**

**Ronin**
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

**Paulie el loro bocazas**
Domeka: 17:00.

**RONIN**
***Zuzendaria:*** *J. Frankenheimer.* ***Aktoreak:*** *Robert De Niro, Jean Reno, Stellan Skarsgard.*
Gerra hotzean esperientzia handia izan duen mertzenario talde bat Parisen elkartuko da eta arrisku handiko lan bat aginduko diete, oso babestua omen dagoen maletin misteriotsu bat lapurtzea alegia. Inork ez du ezagutzen kontratatu dien gizonaren nortasuna. Horrek taldekoen arteko mesfidantza piztuko du...




**ALGO PASA CON MARY**
***Zuzendariak:*** *Bobby eta Peter Farrelly.* ***Aktoreak:*** *Cameron Diaz, Matt Damon, Ben Stiller.*
Farrelly anaiek (Dos tontos muy tontos) errodatutako komedia hau aurtengo Donostiako Zine jaialdian aurkeztu zen eta bere estreinutik izugarrizko arrakasta lortu du takilan. Cameron Diaz eta Matt Damon aktoreek komedian primeran moldatzen direla erakutsi dute. Filmea ikusi dutenek gustora barre egin omen dute behintzat...

BERRIGARAk ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

PILI GISASOLA
Santiveri
Osasun eta Dietetikan espezializatutako zentrua
Zurradero 2 behea.
☎ 943 76 58 83

Carmen Garate
Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...
Bidekurutzeta 6 ☎ 76 13 23

Deco-Textil
ZANGITU
Etxerako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.
Herrilagunak 3-5
☎ 943 76 08 69

# zorion agurrak



**Iosu Irizar**
Abenduaren 24an
6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Toñi**
Abenduaren 20an
39 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Justa Fernandez**
Abenduaren 24an
65 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Ainhoa Oñederra**
Abenduaren 26an
3 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



**Noelia Martin**
Abenduaren 28an
2 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta anaia.



**Aitor Franco**
Abenduaren 15ean
5 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Ainhoa.



**Pablo Franco**
18an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Seme-alabak, Aitor
eta Ainhoa.



**Esteban Mujika**
Abenduaren 26an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Beñat.



**Jesus Joakin Balzategi**
Abenduaren 27an
urtebetetzea. Urte
askotarako! Beñat.



**Juan Manuel Etxezarreta, "Pitu"**
Abenduaren 16an
urtebetetzea. Urte
askotarako! Beñat.



**Uzuri Castelo**
Abenduaren 16an
6 urte. Urte askotarako! Aita, ama eta
Markel.



**Unai Garcia**
Abenduaren 22an
7 urte. Urte askotarako! Etxekoak,
Ander eta Mikel.



**Lierni Elguero**
Abenduaren 14an
10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Alvaro Fernandez**
Abenduaren 30ean
4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Lorena.



**Leire Balanzategi**
Abenduaren 29an
6 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Unai.



**Ander Arenaza**
Abenduaren 24an
12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Isabel Zurbano**
Abenduaren 24an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Ander eta Markel



**Jose Antonio Cot**
Abenduaren 25ean
35 urte. Urte askotarako Andoni! Ilobak
eta familiakoak.



**Marta Rueda**
Abenduaren 15ean
28 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Mireia Olabarria**
Abenduaren 28an
7 urte. Urte
askotarako!
Etxekoak.



**Amaia Jauregi**
Abenduaren 25ean
5 urte. Urte
askotarako!
Etxekoak.



**Sara Barrutiabengoa**
Abenduaren 19an
20 urte. Urte askotarako! Koadrilakoak.



**Eli Aldai**
Abenduaren 16an
15 urte. Urte
askotarako!
Lagunak.



**Migel Angel Lazpiur**
Abenduaren 14an
40 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Maite Muguruza**
Abenduaren 14an
13 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Maria Jesus Aranzabal**
22an 49 urte. Urte
askotarako! Miren,
Olatz eta Gorka.



**Ihintza Orbegozo**
Abenduaren 23an
11 urte. Urte askotarako! Ander, amatxo eta Igarokoak.



**Aitor Marauri**
Abenduaren 22an
13 urte. Urte
askotarako! Aita,
ama eta Maialen.



**Markel Agiriano**
Abenduaren 18an
11 urte. Urte
askotarako! Gurasoak eta beste denok.



**Kontxi Leturia**
Abenduaren 11n
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Xabier Berasategi**
Abenduaren 21ean
4 urte. Urte askotarako! Amatxo,
aitatxo eta Izaro



**Amaia Bolinaga**
Abenduaren 26an
6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Antonio Tabares**
Abenduaren 24an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak.



**Azahara Jimenez**
Abenduaren 12an
12 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



**Alba Jimenez**
Abenduaren 12an
12 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



**Markel Belastegi**
Abenduaren 25ean
8 urte. Urte askotarako! Gurasoak
eta Maialen.



**Erik Cuevas**
Urtarrilaren 6an
14 urte. Urte
askotarako! Etxekoak eta lagunak.



**Igone Belastegi**
Abenduaren 26an
urtebetetzea. Urte
askotarako! Etxekoak eta lagunak.



**Iria Cuevas**
Abenduaren 21ean
7 urte. Urte
askotarako! Etxekoak eta lagunak.


*Txamonix taberna*
Bolu 30, behea. BERGARA. Tf. 943 76 44 49

KAFETEGIA KAIXO
Zurradero, 4. BERGARA. Tf. 943 76 72 38

**PINTXOAK** eta asteburuetan eta jaiegunetan **RABAK!**
**Eta orain, zatoz REALAren eta ATHLETICen partiduak ikustera!**

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkalea 29 BERGARA

**Aurtengo denboraldiko Realaren poster ofizialaren aurkezpen ekitaldia izan zen eguaztenean Udaletxeko Pleno aretoan. Posterraren 70.000 ale kaleratuko dira eta Realeko jokalarien atzekaldean San Martin plaza ikusiko da. Luis Uranga Realeko presidenteak taldeak probintzian duen indarra aipatu zuen aurkezpenean.**

## LUIS URANGA
## Realeko presidentea

# “Gaur egun ultra taldeekin dagoen permitibitatea bukatu beharra dago”




Luis Uranga, Realako presidentea, eguaztenean Sagarpen.

**G.** Zergatik aukeratu da Bergara 1998-99ko Realeko poster ofizialean agertzeko?

**E.** Ez dago inolako arrazoi berezirik. Joan zen denboraldiko posterrean Zarautz, kostaldeko herri bat agertu zen eta aurten barrukaldera jo dugu. Argi dago Gipuzkoan oso toki ederrak daudela eta Bergarak ere monumentu historiko bikainak ditu: Udaletxea, San Pedro eta Santa Marinako parrokiak... eta beste hainbat. Hona etortzeko aukera ona zela iruditu zitzaigun. Bestalde, gure jokalari inportanteenako bat (izan ere internazionala da) hemen jaiotakoa da eta guzti horrek hona etortzera bultzatu gaitu. Esan behar dut oso pozik gaudela hartutako erabakiarekin, Bergarako herritarren partetik oso harrera beroa jaso dugu eta.

**G.** Zer nolako garrantzia dauka Bergarako zalegoak?

**E.** Ez daukat datu zehatzik baina badakit Bergaratik jende asko joaten dela hamabostero Anoetara. Ez ditugu zenbatuta Bergarako zaletuak baina komentatu didatenez bost bat autobus ateratzen dira hemendik. Kopuru horri Donostiara kotxez joaten direnena gehitzen badiogu, uste dut kontutan hartzeko zalegoa daukagula Bergaran.

**G.** Dolu-egunak bizi ditu Realak. Zela baloratzen duzu Aitor Zabaletaren ustezko hiltzailea atxilotu izana?

**E.** Martitzen arratsaldean albistea jasotzean, poztasun sentimendu txiki bat izan nuen, Reala sentitzen dugun guztiok Aitorren heriotzagatik triste egon arren. Orain justizian sinistea geratzen zaigu; atxilotutako hori edo beste batzuk ere Aitorren hiltzaileak direla frogatzen bada, enerjia osoz aktuatzea eskatzen dugu, horrelakorik berriz ez gertatzeko eta honelako “pertsonak” (nolabait deitzearren) behar duten tokian egoteko.

> **“Bergara aurtengo posterrean agertzearekin oso pozik gaude, herritarren partetik oso harrera beroa jaso dugu eta”**

**G.** Ultra talde arriskutsutsuenetakoa ei da Bastion taldea. Anoetan ere izan ziren. Zela lagatzen zaie futbolera joaten?

**E.** Indibidualki, signo ilegalik edo inkonstituzionalik erakusten ez duen bitartean, jendea edonora joateko libre dela uste dut. Hala ere, ultraeskuindar zein ultraezkertiar taldeekin dagoen permitibitatea bukatu beharra dago, guztiz desterratuta egon behar ziren signoak erabiltzen dituztelako.

**G.** Zer deritzozu Realeko peñek adierazitakoari? Aitor euskalduna izateagatik hil zutela esan dute.

**E.** Realeko peñakoak dira ekipoarekin gehien irtetzen direnak eta beraiek dira erasoak jasotzen dituztenak eta honelako astakerian aurrean sensibleenak. Eurek idatzitako nota hori bihotzarekin idatzitakoa da eta nik errespetatu beharra daukat.

**G.** Azkenik, Real Madrid B taldeko jokalari batekin gertatua ikusita, jokalarien klausulak baliorik gabe geratzeko arriskua dago...

**E.** Horrelako kasuak zentzuzko epaileen eskuetara heltzeko konfiantza daukat. Ez da ahaztu behar klausula bi aldeek sinatutako kontratuaren puntu bat dela eta beraz bien borondatearekin sinatu dela. Epaileak hori horrela ikusiko balu, ez legoke arazorik. Horrela ez balitz, futbolean indarrean dagoen antolaketa sitema arriskuan litzateke eta gure taldeak, duen filosofiarekin, ondorio txarrak jasango lituzkeela. B



Era askotako ekitaldiak izango dira "Bai Euskarari" kanpainaren barruan, besteak beste, herri bazkaria domekan.

# "Bai Euskarari" kanpainaren inguruko ekitaldiak asteburuan

**"Bai Euskarari:** XXI. Mendeko Akordioa" kanpainan Bergaran antolatu diren ekitaldi nagusiak astebukaera honetan izango dira. Gaur, eguakitza, haurren kalejira izango da 15:30etan, trikitilarien laguntzaz, ikastetxe bakoitzetik irtenda. Ondoren, San Martin plazan pankartak zintzilikatu eta manifestua irakurriko dute.

Zapatuan, 17:00etan, haurrendako karaokea izango da San Martin plazan eta bolo txapelketa jubilatuen egoitzan. 18:30etan, gaztainerreak, trikitilariak eta kantuak izango dira San Martin plazan eta 20:00etan trikipoteoa Itxaro "and konpani"rekin eta Kukumako hankapaluekin. Gauerako, gazteendako afaria iragarri dute Seminarioko patioan eta afari osterako, jaialdia herriko taldeekin; bertan, bertsolariak, Fly Shit, Josune eta Edurne, txalaparta eta malabarak izango dira. Afarirako txartelak 1.200 pezetan salduko dira.

Domekarako, herri bazkaria antolatu da Udal Biltegian; herriko hainbat elkarte gastronomikok gertatutako baba jana izango da. Bazkarirako txartelak (2.000 PTA), Pol-Polen, Kortazarren eta Antxonin, AEKn eta Udal Euskaltegian, Jardunen eta herriko ikastetxeetan eskura daitezke. Bukatzeko, 18:00etan, atxekimendu ekitaldia izango da San Martin plazan: "Bai Euskarari" anagrama osatuko da, akordioa sinatu dutenen artean eta, ondoren, anagrama zintzilikatu eta manifestua irakurriko da. Manifestua, seguruen, Mikel Laskurain aktore bergararrak irakurriko du.

Bestalde, Antzuolako herri batzordeak txistorrada antolatu du zapatuan 19:00etan Antzuolako plazan.

Bai Euskarari kanpainari amaiera emateko, Hego Euskal Herriko bost futbolzelai nagusietan, aldi berean, jaialdiak antolatuko dira abenduaren 26an. Bergaratik autobusa irtengo da Gasteizko Mendizorrotzara. Irteera 15:00etarako iragarri dute Beheko Estazioan. Txartelak 1.000 pezetan izango dira salgai Kortazarren eta Jardunen. Hilaren 24ra arte autobuserako txartelak eskuratzeko aukera izango da eta ikastetxeetan 23ra arte. Jaialdiak 19:30etan hasiko dira. B

## Ertamerikarren aldeko zozketa institutuko ikaslee[k]

**Ipintza** Institutu[ko] Logse-ko lehen maila[ko] ikasleak zozketa anto[la]tu dute Mitch hurakan[ak] kaltetutakoei laguntz[e]ko. Txartelak 200 peze[ta]tan eskura daitezke he[rriko hainbat denda e[ta] tabernatan eta zenba[it] produktu sorta zozke[ta]tzen dute. Hil hone[n] 30eko itsuen zozketa[n] lehen sariarekin bat e[gi]ten duen zenbakiak e[ra]mango du saria.

Bestalde, hirugarre[n] munduari laguntzek[o] herrian lanean dabiltz[an] erakundeek aurrera [ja]gitzen dute Mitch-e[k] kaltetutakoei laguntzek[o] kanpainarekin. Kon[tu] korronte zenbakiak z[a]balik dituzte oraindi[k]. Oscar Romero taldea[k] orain arte 6.260.000 p[e]zeta batu ditu.

## Presoak Euskal Herrira taldearen ekimena

**Euskal** Presoak Eu[s]kal Herrira taldeak bes[te] ekimen bat antolatu d[u] Gabonetarako. Kart[el] bereziak jarriko ditu[z]te salgai Oxirondo Azok[an] eta San Martin plaza[n] etxeko balkoietan zint[zi]likatzeko. Honekin, G[a]bonetan familia guzti[a] presoekin elkartasu[na] adieraztera animatu n[ahi] dituzte. Kartelak abe[n]duaren 19an eta 24[an] izango dira salgai, g[e]zez azokan eta egu[n]dian plazan.

# Labegaraietako industria-poligonoa garatzeko elkarte anonimoa sortuko da

**Labegaraietako** poligono industrialaren garapena kudeatzeko elkarte anonimoa sortzea onartu zuen Udalbatzak eguaztenean aho batez. Bestalde, Bergarako Industrialdea S.A. enpresaren kapital gehikuntza ere onartu zuen.

Labegaraietako industrialdeak pabilioi eskaera handia du, eskaintza baino handiagoa. Hori dela eta, "eskariari aurre egin ahal izateko, eta horrela langabeziaren arazoa konpontzen eta Bergarako poligono industrialak garatzen lagunduko digulakoan, erabat Udalaren diruz osatutako sozietate anonimo bat sortzea erabaki dugu" esan digu Victoriano Gallastegi alkateak.

Sozietate anonimo horren egitekoa industriarako eta mota guztietako zerbitzuetarako eraikinak kokatzeko lursailak sustatu, ordenatu, urbanizatu, erosi eta saltzea izango litzateke besteak beste. Hasierako kapitala 10 milioi pezetakoa izango da, legeak eskatzen duen gutxieneko kopurua delako. Udalbatzak sozietate anonimo horren estatutuak onartu zituen eguaztenean.


Industrialdearen garapenaren kudeaketa elkarte anonimo batek egingo du.

Bestalde, Bergarako Industrialdea S.A. enpresaren hirugarren kapital gehikuntza ere onartu zen eguazteneko osoko bilkuran. Enpresaren kapital soziala 100 milioi pezetan gehitzea onartu zen eta Bergarako Udalak %24,5eko partea duela kontutan izanik, 24.500.000 pezetako diru-ekarpena egin beharko du sozietatean. B

## Gabonetan zaborrak ateratzeko ordutegia aldatu egingo da

**Abenduaren** 24 eta 31n, Gabon eta Gabon zahar egunetan, zabor-bilketa gauean egin beharrean eguerdiko 14:00etan egingo da. Beraz, 13:00tik 14:00ak bitartean laga beharko da zaborra dagokion guneetan. Deba Garaiko Mankomunitateko langileek jai hartuko dute eta, beraz, ez dute lanik egingo egun seinalatu horietan gauez. Udaltzainek herritarrei eskatu nahi diete oharra aintzakotzat hartzea.

Bestalde, traste zaharren bilketari dagokionez, hileko lehen eguaztenean egin beharrean bigarrenean egingo da, urtarrilaren 13an, lehenengo eguaztena, urtarrilak 6, Errege eguna baita.

## Jose Antonio Zabalari omenaldia egingo zaio gaur Udaletxean

**Jose Antonio** Zabala omenduko dute gaur 19:00etan Udaletxeko Pleno Aretoan, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak eta Bergarako Udalak. Era berean, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak argitaratzen duen "Egan" literatur aldizkariaren 50. urteurrena ospatuko dute.

Ekitaldian, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko kideek, "Egan" aldizkarikoek eta Bergarako alkateak hartuko dute parte. Horiez gain, Bergarako Orfeoia ere bertan izango da. David Azurzaren zuzendaritzapean eta Iñigo Alberdi pianujolearen laguntzaz, sei pieza eskainiko ditu Orfeoiak.





GISASOLA BURDINAKI DENDA
"Erratzu"
San Pedro 8 Tf.: 943 76 27 70 BERGARA

KONDE

PANADEROKUA
Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

# Berrigara

348 zenbakia.
1998ko abenduaren 18a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**
**Telefonoa: 943 76 03 97**
**Faxa: 943 76 29 77**
**Argitaratzailea: JARDUN Elkartea**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.
**Erredakzioa:** Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
**Publizitatea:** Kristina Romero.
**Harpidetza:** Nerea Lazpiur.
**Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien.
**Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
**Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntzaz:**

Bergarako Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

## gutunak

**Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskua: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77 Gutunak identifikatu egin behar dira**

### PRESOAK EUSKAL HERRIRA

Gabon hauek etxean goxo-goxo familiarekin pasa behar al dituzu? Ez al dute euskal presoek aukera bera merezi? Adieraz ezazu zure elkartasuna, presoek Gabonak etxetik eta familiarengandik gertu pasa ditzaten eskatuz.

Horretarako, jar ezazu plazan edo merkatuan salgai aurkituko duzun kartela zure etxeko balkoian. Abenduaren 19an eta 24an izango dira salgai kartelak: goizez merkatuan eta eguerdian San Martin plazan.

Gabonetarako Euskal Presoak Euskal Herrira!

*Euskal presoak*
*Euskal Herrira taldea*

### BERRIGARAKO IRAKURLEEI

Datorren asteko BERRIGARA eguenean, abenduak 24, banatuko da, eguakitza jai eguna da eta. Gainera, berezia izango da: 1998 urteari errepasoa. 80 orrialdeko errebista izango da: BERRIGARAk 68 orrialde izango ditu eta KONTUOLAK 12. Zuen gustokoa izatea espero dugu.

Bestalde, urtarrilaren 8ra arte ez duzue BERRIGARArik jasoko, oporrak hartuko ditugu eta. Beraz, Gabon zoriontsuak izan ditzazuela eta urte berri on!

## tira biraka: unai azkarate



■ atrebentzia ezpada

## Gabonak gainean ditugula eta, noiz eta non erosi ohi dituzu opariak?



**Martin Arreseigor**

Azken ordurako laga barik, egun batzuk lehenago egiten ditut erosketak, normalean andrearekin. Bergaran eta Gasteizen egiten ditugu erosketak.



**Inmaculada Gomez**

Beti azken orduan ibiltzen naiz, ezkutuan, "txoriak" ez harrapatzeko. Ez dit ardura jende askoren artean erosketak egiteak. Bilbo aldean eta Bergaran ibiltzen naiz.



**Mari Martin**

Aste honetan bertan hasi naiz erosketak egiten, pixkanaka-pixkanaka egitea onena. Lasaitasunez ibiltzeko horixe onena. Bergaran erosten ditut opariak.



**Amparo Lijo**

Egia esan, haurrentzako gauza handirik ez dago Bergaran eta nahiago dut opariak herritik kanpo erostea, aukera zabalagoa delako.



**Teodoro Fernandez**

Gauza interesgarriak ikusi ahala erosten joaten naiz. Ez ditut denak azkenerako lagatzen. Donostian eta Gasteizen batzuk eta besteak Bergaran erosten ditut.



**Vicente Martinez**

Ni ez naiz opariekin batere arduratzen; andreak egiten ditu Gabonetako erosketa gehienak. Ez zait batere gustatzen erosketak egitera joatea.

■ bai, esan!

**Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.**

**Irati Agirrek** deitu digu buzoietan banatutako iragarki baten inguruan komentario bat egiteko. Joan zen astean Arrasateko jantzi bakeroen denda bateko propaganda hartu zuen etxean. Dendaren eskaintzen berri ematen zen paperean eta testua euskaraz eta gazteleraz idatzita zegoen: alde batetik euskaraz eta bestetik gaztelera z. Gaztelerazkoa, normal. Euskarazkoa, berriz, akatsez beteta, astakeria ugari irakur ei zitezkeen bertan. Iratik esan digunez, eskertzekoa da propaganda euskaraz ere egitea, baina egindako itzulpenak erakusten du zelako inportantzia ematen dion aipatutako denda horrek euskarari.

■ ikuspuntua: **juan antonio migura**

## *Erantzule ideologikoei*

Aitor Zabaletaren erahilketaren inguruan hunkituta dago gizartea eta garrantzi gutxiko eta labain azkarreko gaizkile batek irentsiko du kaka guztia. Horixe da jarri nahi duten amaierako puntu faltsua, bestelako galderak egiten hasteak beste kolektibo eta estamentu ugari nahastuko bailuke krimenean. Marginazioagatik edo beste arazoren batengatik hitz erdirik esan gabe labankada bat emateko prest dagoen tipoaren atzetik,



beti egoten da arduradun ideologikoren bat, bestea sostengatu eta bultzatzen.

Autore ideologikoak euren jarrera dominatzailearen atzean izkutatzen dira euren arrazonamendu egozentrikoen ondorioak beste batzuri ordainarazteko. Gutxi dira epaitegietatik pasatzen diren ideien erantzuleak eta asko ekintzen arduradunak. Pinochet aulkian jarri araztea da salbuespenetako bat. Augusto Pinochet ideologo prototipoa da, indarraren kontrola bateratzen duena eta krimen mota guztiak gurutzadan justifikatzen dituena. Aste hauetako tira-bira internazionalak eraginkortasun urria izango du ezertara behartzeko, baina baliozkoa da zigor sozial gisa. Inor ez dadila nahastu.

Pinochet-ena anekdota hutsa da ideologoak barra-barra dauden mundu honetan, eta lasai asko ari dira gainera, seguru baitaude beti aurkituko dutela nabajeroren bat teoria praktikara eramateko prest egon eta gainera heroi sentituko dena. B

■ asteko menua: **beheko taberna jatetxea**

# Konejua labean



MARIA ISABEL SAN MIGUEL
*Beheko Taberna jatetxeko sukaldaria*

**OSAGAIAK (4 lagunentzat)**

- Koneju bat
- Tomate frijitua
- Ardo zuria
- Irina
- Gatza
- Tipula erdi
- 2 berakatz ale
- Oliba olioa

**PRESTAKETA**

- Konejua erdibitu, berakatza eta olio apur bat bota eta labean sartu.
- Hiru ordu laurden edo ordubete eduki, ez oso tenperatura altuan.
- Egiten denean, ardo zuri txorrotada bat bota.
- Lapiko batean konejuari gehituko diogun saltsa gertatu.
- Saltsak irakiten duenean, konejuaren gainetik bota.
- Mahaira atera aurretik, zertxobait berotzen laga..., eta mahaira ateratzeko prest!

*Saltsa egiteko:*

- Lapiko batean oliba olioa ipini eta tipula txikitua eta irina bota.
- Gorritzen hasten denean, ura, tomate apur bat eta gatza gehitu.

■ adituen esanetan

# Gabonetako arbolak

JUAN MANUEL RUIZ, *Eki talde ekologistakoa*

Gabonetako apaindutako arbolen artean uste dugu bi atal desberdindu behar direla: alde batetik, gorostiak (aspalditik debekatuta) eta, bestetik, pinuak. Gorostiaren gaiarekin, zorionez, jendea nahiko kontzientziatuta dago eta esan behar da gorostia eta goroldioa gutxi erabiltzen direla gaur egun. Pinuak, berriz, oraindik ere Gabonetan asko jartzen dira, baina ez da gertatzen orain urte batzuk ikusten genuena, jendeak mendian edozein modutan moztu eta pinua etxera ekartzen zuenean alegia. Gaur egun haztegietako pinuak erabiltzen dira kasu gehienetan eta, beraz, mendiari ez zaio kalterik egiten.

Dena den, "erabili eta botatzearen" kulturan bizi gara eta Gabonen ostean jendeak ez du jakiten pinuarekin zer egin. Mendian berriz landatzeak ez dauka zentzurik mendietan nahikoa pinu dagoelako eta pinua hilda egoten delako ordurako. Zaborretara botatzea izaten da onena. Zaborarren kontuarekin, kontenedoreak erabiltzearen garrantzia azpimarratu nahi dugu. Bestalde, sasoi honetan, orokorrean, kontsumoa gehiegizkoa izaten delakoan gaude eta opari (animalien kasuan batez ere) eta bestelako erosketak egiten hasi aurretik bi aldiz pentsatzea ondo etorrtzen da. B

■ bergarako gordailutik

## BAKAILAO ETA BALEA BILA TERRANOBARA

**Imanol Sorondo**

Bi ohartxo ipini behar ditugu aldez aurretik gaurko gaiari buruz. Ez dakigu zer urtetakoa den gure artxiboan daukagun idatzi hau eta, beste alde batetik, gaia ez da gure herrikoa bakarrik, Gipuzkoa osokoa baizik, Bergaran garrantzia handia eduki arren, bertan zegoen merkataritzagatik.

Idatziak dioenez, Gipuzkoako lurrak ez dira onak gari asko jasotzeko eta hau oso garesti ipini da, gainera. Beste alde batetik, orain ez dute garia bidaltzen Frantziatik eta Ingalaterratik, lehen egiten zuten bezala; lur jota gelditzeko arrisku handian dago Gipuzkoa eta honek irtenbide bat proposatu du korapiloa askatzeko: bakailao eta balearen bila Terranobara joatea.

Gertatzen da itsasontziak kaietan egotera behartuak daudela, Erregeak, ingelesen eta rotxeldarren beldurrez, agindu duenez. Gauzak konpondu nahian Gipuzkoak idatzi bat bidali dio Erregeari Donostiatik zenbait gauza eskatuz: lagatzeko joaten, ez dutela beldurrik eta, baimenarekin batera, gudarien laguntza ere emateko; Gipuzkoaren etorkizunerako ez dagoela beste biderik. Gainera, diote itsasontzi bakoitzak 100 gizon eroango dituela, horietatik 30 esperientzia daukatenak eta beste 70ak gazteak. Komeniko litzatekeela ikasitako batzuk lurrean gelditzea beste batzuei erakusteko, eta horrela aurrerantzean jende prestatua edukitzeko. Bitartean, frantziarrak ondo aberasten ari direla hemengoak Terranobara ez joatearekin eta diru asko ateratzen dutela bakailao eta balearen arrantzuarekin. Azkenik, ingelesak eta frantziarrak gure arteko arrantzaleak Terranobara joan ez daitezen ari direla beldurra sartzen, baina eurak bitartean beste arrantzatoki batzuetara joaten direla. B



ARGAZKIAK: KIÑU

# Gipuzkoako Miss lehiaketan

**Anabel Picos** antzuolar gazteak **Miss Gipuzkoa** lehiaketan parte hartu zuen zapatuan Zestoako balnearioan. Anabel psikologia ikasten dago Donostiako fakultatean eta, era berean, First Models modelo ajentzian ari da. Ajentzia honek antolatutako Miss Gipuzkoa lehiaketako finalera 15 neska iritsi ziren eta 300 bat ikusle izan ziren Zestoako balnearioan. Azkenean, **Lorena Bernal** 17 urteko donostiarrak jantzi zuen irabazlearen koroa, baina Anabelek (eskuman) ere estilo bikainez desfilatu zuen bainu jantziarekin eta gaueko trajearekin.





# *Teilatua konpontzen*

*Seminarioaren teilatua konpontzen ari dira egunotan. Estatuak **16 milioi pezeta** bideratu ditu teilatuan dauden kalteak zuzentzeko.*

*Lehen fasean kupulari estruktura metalikoa jarri zitzaion eta aldi berean teilatua jarri zen, ur filtrazioek kupula arriskuan ez jartzeko. Orain, itokinak saihestu eta kubierta finkatzeko azpiko teilatuetan egin beharreko lanak lau hilabetez luzatuko dira. **Seminarioko fatxada** berrizteko asmoa ere badago; **aurrekontua 18 milioi pezeta** ingurukoa da eta Diputazioak, hasiera batean, 6 milioi ordainduko lituzke.*

# Urrezko ezteiak

**Ignacio Bilbaok eta Begoña Zubizarretak** euren ezkontzaren urrezko ezteiak ospatu zituzten joan zen **azaroaren 15ean**. Begoña eta Ignacio 1948ko azaroaren 11n ezkondu ziren Bergaran eta elkarrekin igarotako azken 50 urteak euren sendikoekin ospatu nahi izan zuten. Loiolan meza entzun ondoren bazkaria izan zuten eta han izan ziren, besteak beste, bikotearen lau seme-alabak, biloba, Begoñaren anaia, Ignacioren arrebak eta daukazten 9 ilobak. Zorionak biei!!



## BERGARA XVIII. MENDEAN

# Bidaiari ilustratu baten ikuspegia (eta II)

**"Zumalakarregi Museoa" aldizkarian Mikel Alberdi Sagardiak, "Bidaiari ilustratu bat XVIII. mendeko Euskal Herrian" izenburuarekin argitaratutako pasartearen 2. zatia argitaratzen dugu aste honetan.**

Xabier Larrañaga

Joan zen astean Bergarari eta Bergarako etxe nagusiei, parrokiei eta mendiei buruz jardun zitzaigun "gure" bidaiari ilustratua. Garai hartan 700 biztanle pasatxo zituen Bergarak. Aste honetan Errege Mintegian erreparatuko du. Seminaristei, irakaskuntzari eta hezkuntzari buruz dabil oraingoan eta Peñaflorida kontea eta Narros-eko markesa darabil ahotan.




*Uno de los seminarios es para doncellas, ha sido mui util al pueblo, pero oy por el sumo gesuitismo de sus directores, y con las ideas de hacerlo clausura se halla mui deteriorado. El otro seminario que está a la dirección de la Sociedad de los Amigos del Pais, ocupa la casa y colegio que fue de los gesuitas. Ha mui poco que se fundó y será utilisimo a todo aquel pais, y aun a toda España si logran ponerlo en el pie que corresponde y solicitan sin perdonar fatiga alguna. El conde de Peñaflorida, y el Marques de Narros, que sin otro objeto han fixado su residencia en Bergara, han hecho varias obras para acomodar la casa al nuevo destino; pero deberan hacer muchas mas, no solo para la comodidad de los seminaristas, sino tambien para su buen govierno, enseñanza, y educacion. Ya son quarenta los alumnos que ay dentro, y diez mas que tienen admitidos. Tienen quatro salas para dormitorios en dos galerias que ay una encima de otra. Las camas están mui juntas sin mas division que la de unas colgaduras mui cortas. En cada dormitorio ay un director y un maestro, o un criado, en un quarto inmediato que comunica con él, de suerte que si no ponen maior numero de directores de respeto y celo, de que entiendo no se hallan sobrados los que oy existen y no proporcionan la casa para que no anden dexastrados los jobenes, habrá de obrar la gracia extraordinarios milagros para que no se perbiertan los jobenes. Estos como su principal* [*principal*, kasu honetan zuzendari bezala uler daiteke] *y su teniente* [*teniente*, hemen zuzendariorde], *ygualmente que los maestros, a excepcion de el de matematicas que es un tal Mas, valenciano, hombre celosisimo, y el de primeras letras que enseña a escribir perfectamente segun el sistema de Palomares, joben, a quien emplean ademas en la mayordomia del colegio con cien pesos* [bost pezetako balioa zuen zilarrezko txanpona] *de renta por todo, a excepcion digo de estos, y del conde, todos los demas tienen malisimo credito en el pueblo, donde se dice tambien que con motibo de entrar a tertulia las señoras y de ir sus criadas a acompañarlas, han sucedido grandes desordenes; pero instruidos como se hallan de todo esto los señores de la Sociedad debemos esperar que proveerán de remedio a todo.*

# Dena AUTO

## 2. ESKUKO AUTOMOBILEN GIDA

ARRASATE PRESS eta BERRIGARAren, 2. eskuko autoen hilabetekaria.
4. zenbakia. 1998ko abendua.
Komertziala: Nerea Lazpiur. Diseinua eta maketazioa: Iñaki Iturbe eta Txos Azurmendi.
Tirada: 11.500 ale. Tf.: 943 76 03 97. Faxa: 943 76 29 77.




| MARKA ETA MODELOA | MATRIK. | URTEA | EZAUGARRIAK | PREZIOA |
|---|---|---|---|---|
| **AMETS TAILERRAK. BEREZANO AUZOA 5. OÑATI. TF. 943 78 19 50** | | | | |
| Fiat Ducato | SS-AW | 1996 | Autokarabana, 6 plaza | *7 |
| Ford Mondeo 1.8 TD Fam. | SS-AW | 1996 | ABS, AG | *7 |
| Ford Mondeo 2. Ghia | SS-AP | 1993 | SE, ABS, AG | *6 |
| Ford Fiesta 1.3 | BI-AS | 1992 | 5 ate | *3 |
| **ASEGINOLAZA AUTOAK. URTEAGA 37. BERGARA. TF. 943 76 12 50** | | | | |
| Opel Omega | | 1994 | Erabat jantzia | *7 |
| BMW 320 I | | 1989 | IK, 4 ate | *3 |
| Ford Mondeo TD | | 1993 | IK, IZ, KE, AG, Airbag | *6 |
| Ford Escort TD | | 1996 | IK, IZ, KE, Airbag | *6 |
| Ford Fiesta 1.3 | | 1997 | IK, Airbag | *5 |
| **AUTOLEYMA. AITZITURRI 5. BERGARA. TF. 943 76 09 30** | | | | |
| Peugeot 605 ST DT 2.5 | | | IZ, KE, LD, AG, ABS, Airbag | *7 |
| Peugeot 406 ST 2.0 | | | IZ, KE, LD, AG, ABS, Airbag | *7 |
| Peugeot 306 Sedan 1.6 | | | IZ, KE, LD, Airbag | *6 |
| Peugeot 306 XN 1.4 | | | LD, Airbag | *5 |
| Peugeot 106 Sketch D | | | 3 ate | *4 |
| **BERGARA AUTOAK. AMILLAGA 10. BERGARA. TF. 943 76 04 58** | | | | |
| BMW 325 TDS | Ipintzeko | 1995 | KL, ABS, Airbag, Musika ekipoa | |
| Mitsubishi Montero 2.5 TDI | Ipintzeko | 1992 | AG, IZ, KE | |
| Mitsubishi Pajero 2.5 TD | Ipintzeko | 1991 | LD, IK | |
| Opel Frontera 2.3 Turbo Intercooler | SS-AS | 1993 | LD, IZ, KE, IK | |

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko hagunak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak
HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoa
KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak
LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoa

*1: 300.000 PTAra arte
*2: 300.000-500.000 PTA
*3: 500.000-750.000 PTA
*4: 750.000-1.000.000 PTA
*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
*6: 1.500.000-2.000.000 PTA
*7: 2.000.000 PTAtik aurrera

Garajeko mandoen kopiak egiten ditugu!
Txorno
Auto-errekanbioak
Ibargarai 33, behea. BERGARA
943 76 29 95

AGUSTIN
Automobilaren karburazio eta elektronika
Airtel
Uribarri etorbidea 16.
Arrasate. 943 79 73 58

AUTO DESGUACES
BERGARA
943 76 35 47 (desguazekoa)
943 79 76 33 (etxekoa)
BIGARREN ESKUKO PIEZAK
PNEUMATIKO BERRIAK ETA ERABILITAKOAK
GRUA ZERBITZUA

TXURRUKA AUTOAK S.L.
• Garajea
• Garraio zerbitzua
• Taxi zerbitzua
Aitziturri 5. San Lorentzo. Bergara.
Tf. eta faxa: 943 76 12 36.

| MARKA ETA MODELOA | MATRIK. | URTEA | EZAUGARRIAK | PREZIOA |
|---|---|---|---|---|
| Ford Transit | SS-AH | 1990 | IK | |
| Audi 80 TDI | Ipintzeko | 1993 | IZ, KE, LD | |
| **BERRIA GARAJEA. AMILLAGA 49. BERGARA. TF. 943 76 22 43** | | | | |
| Ford Sierra | SS-Z | 1987 | 4 ate, Km gutxi, Egoera bikainean | 350.000 |
| Audi 80 1.8 E | SS-AB | 1988 | KE, LD, IZ, Egoera onean | 800.000 |
| Renault Clio D 1.9 RT | | 1991 | | 750.000 |
| Citroen BX 1.7 TZD | SS-AM | 1992 | ABS, AG, 4 KE, LD, IZ, AH, LK | 800.000 |
| VW Santana TD | BI-AF | 1984 | | Merkea |
| **GURTZAIN GARAJEA. ALMIRANTE BIKUÑA Z/G . LEGAZPI. TF. 943 73 00 92 / 929 43 74 12** | | | | |
| Toyota Land Cruiser | SS-AF | 1989 | Erabat jantzia | 1.200.000 |
| Renault 18 Familiarra | VI-G | 1987 | Oso egoera onean | 300.000 |
| Peugeot 205 D | NA-T | 1988 | | 400.000 |
| Land Rover Largo | | | Egoera onean | 385.000 |
| Range Rover | SS-AS | 1993 | Erabat jantzia | 2.500.000 |
| **ION AUTOAK. AMILLAGA 36. BERGARA. TF. 943 76 47 49** | | | | |
| VW Polo GT | NA-X | 1990 | Km gutxi, 3 ate, 6 hilabeteko garantia | 500.000 |
| Citroen Xantia 2.1TD VSX | M-TH | 1996 | Urte beteko garantia osoa | 2.400.000 |
| Rover 220 GSi | SS-AT | 1994 | Osagarriak, 6 hilabeteko garantia | Interesgarria |
| Renault Express D | SS-AC | 1988 | Oso egoera onean, 5 plaza | Interesgarria |
| Peugeot 405 1.9 TD | SS-AJ | 1990 | Oso egoera onean, 6 hilabeteko garantia | Interesgarria |
| Rover 820 Si | SS-AF | 1989 | Osagarriak, Garantia | Interesgarria |
| **JASO GARAJEA. AMILLAGA 1, 4 PABILIOIA. BERGARA. TF. 943 76 33 00** | | | | |
| Peugeot 205 GTX 1.6 | SS-XIK, IZ, KE, Aluminiozko hagunak | | | *1 |
| **KANPAZAR TAILERRAK. BIZKAIA ETORBIDEA Z/G. ARRASATE. TF. 943 79 41 98** | | | | |
| VW Golf 1.8 | SS-AP | 1993 | LD, IK, IZ, KE, 5 ate | *5 |
| Fiat Uno 70 | SS-AC | 1988 | IK, IZ, KE, 3 ate | *2 |
| Fiat Uno 70 | BI-AU | 1988 | IK, IZ, KE, 3 ate | *2 |

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko hagunak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak
HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoa
KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak
LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoa

*1: 300.000 PTAra arte
*2: 300.000-500.000 PTA
*3: 500.000-750.000 PTA
*4: 750.000-1.000.000 PTA
*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
*6: 1.500.000-2.000.000 PTA
*7: 2.000.000 PTAtik aurrera

**GARAJE MURILLO**
Mekanika orokorra
Leizeaga 4 • Bergara
Tf. 943 76 13 84
IVECO
Garraioaren mundua

**LAGUN GARAJEA** ad
Javier Gallastegi Arenaza
Tailer profesionala
• Mekanika orokorra
• IAT/ITVrako prestaketa
**ORAIN HELBIDE BERRIA!**
Santalaitz 3. Beragara. Tf. 943 76 11 20

**ARRASATE AUTOZERBITZUAK, S. KOOP.**
- Autoa eskuz garbitzea
- Jarleku etatapizerien garbiketa
- Autoaren azterketa
- Mekanika orokorra
- Eta abar...
Uribarri 20. Arrasate.
Tf. 943 79 52 76

| MARKA ETA MODELOA | MATRIK. | URTEA | EZAUGARRIAK | PREZIOA |
|---|---|---|---|---|
| **LENIZ GARAJEA. AINGERU IBILTOKIA 31. ESKORIATZA. TF. 943 71 50 61** | | | | |
| Renault Expres D Combi | SS-X | | | 350.000 |
| **MARKIEGI AUTOAK. SAN LORENTZO Z/G. BERGARA. TF. 943 76 35 09** | | | | |
| Fiat Tempra | | 1992 | Oso egoera onean | *3 |
| **MUGARRI. ARABA ETORBIDEA Z/G. ARRASATE. TF. 79 07 44** | | | | |
| Nissan Patrol D | | 1992 | Full equiped | |
| Nissan Terrano TDi | | 1996 | Tope Luxua | |
| Nissan Patrol GR TD | | 1994 | 3 ate | |
| Nissan Patrol GR TD | | 1994 | 5 ate | |
| Ford Mondeo TDI GL | | 1997 | Erabat jantzia | |
| Ford Mondeo TDI Guia | | 1994 | Erabat jantzia | |
| Ford Escort TDI GL | | 1994 | Erabat jantzia | |
| Ford Escort TDI GL | | 1998 | Erabat jantzia | |

* 40 auto baino gehiago 200.000 eta 3.000.000 pta. artean. Zatoz ikustera!

| MARKA ETA MODELOA | MATRIK. | URTEA | EZAUGARRIAK | PREZIOA |
|---|---|---|---|---|
| **OLA TAILERRAK. OLABARRENA Z/G. BERGARA. TF. 943 76 47 74** | | | | |
| Ford Fiesta | SS-AF | 1989 | IK | Kontsultatu |
| Opel Kadett | SS-AD | 1989 | AH, IK, KE, IZ | Kontsultatu |
| Renault Cio | SS-AL | 1991 | IK, KE, IZ | Kontsultatu |
| Renault Express | BI-AZ | 1989 | Mistoa, 5 ate | Kontsultatu |
| Hyundai GT | SS-AT | 1994 | AH, IK, KE, IZ, Aleroia, 3 ate | Kontsultatu |
| **SEAT UDALAITZ. MUSAKOLA Z/G. ARRASATE. TF. 943 79 18 80** | | | | |
| WV Golf | SS-AF | | | *3 |
| WV Passatt VRG | SS-AN | | | *4 |
| Opel Vectra 16 V | SS-AK | | | *4 |
| Opel Kadett 1.6 | M-MW | | 5 ate | *1 |
| Citroen BX TD | SS-AL | | Erabat jantzia | *3 |
| Opel Kadett 1.6 | SS-X | | 4 ate | *1 |
| VW Golf D | SS-AS | | | *5 |

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko hagunak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak
HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoa
KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak
LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoa

*1: 300.000 PTAra arte
*2: 300.000-500.000 PTA
*3: 500.000-750.000 PTA
*4: 750.000-1.000.000 PTA
*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
*6: 1.500.000-2.000.000 PTA
*7: 2.000.000 PTAtik aurrera

JASO GARAJEA
Orain helbide berria!
AUTOEN KONPONKETA OROKORRA
Amillaga 1, 4 pabilioia. Bergara.Tf. 943 76 33 00

TXOMIN GARAJEA ad
Tailer profesionala
• Mekanika orokorra
• IAT/ITVrako prestaketa
Lizarraga auzoa • ANTZUOLA • Tf. 943 78 70 77

El acuerdo del siglo XXI

# XXI. mendeko akordioa

L'accord du XXIe siècle

www://jalgi.com/baieuskarari

bai

euskarari

Abenduaren 26an baduzu konpromezu bat · El 26 de diciembre tienes un compromiso · Le 26 décembre tu as un engagement

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA

# GABONETARAKO
# EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA


Luis Mari Azkargorta


Jabier Lazkano


Eukene Gracia


Iñaki Arenaza


Jose Migel Gaztelu




Xabier Oregi


Luis Etxeberria


Mikel Askasibar


Jose Mari Etxaniz


Iñaki Arietaleaniz

**+9**
**errefuxiatuak**


Jose Luis Elkoro

# LASTER ARTE

**Bergarako *Presoak Euskal Herrira* taldea**

# Erretaula egoera larrian

## Konponketa sakona beharrezkoa da

**Santa Marinako erretaula nagusia egoera txarrean dago. Sitsaren kontrako tratamendua martxan jartzean, teknikoek uste baino oztopo gehiago aurkitu dituzte. Fumigazioak baino lan gehiago emango du erretaulari eusteak. Erretaula erdialdeko zati bat sitsak janda dago eta, ondorioz, erretaula aurrera etorri da. Bestalde, erretaulak barniz kapa sendoa dauka eta hori kentzen ez zaion bitartean ezin izango da erretaula fumigatu.**

Donostiako Garbi enpresak urrian ekin zion Santa Marinako erretaula nagusia fumigatzeari, baina hasi eta berehala lanak bertan behera laga behar izan zituen. Alboetako erretaula txikietan sitsaren kontrako tratamendua martxan jarri bada ere, erretaula nagusiaren egoera uste baino larriagoa dela ohartu dira teknikoak. Goiko aldetik hasita, erretaulako "kaskaroia" esaten zaiona ondo eutsita dago. Egur galerak dauzka, baina estruktura aldetik ondo dago. Benetako arazoa erdialdean dago. Erretaularen barrura sartzeko bi bide aurkitu dituzte erdialdean eta Xabier Azkoitia parrokoak azaldu digunez, "alboetako zutabeak erretaularen euskarri direla uste du jendeak eta kontua da apaingarri hutsak direla. Estruktura haritzez eginda dago eta kanpoaldea gaztainaz. Dekorazioa, berriz, intxaurra da eta hau zeharo janda dago, sitsak ez dio kalterik egin ez haritzari eta ez gaztainari. Erretaularen pisu guztia alboetako mentsulek eusten dute. Irazustari zera gertatu zitzaion; lekurik ez zuela atzeraka egiteko eta aurreraka egin zuela. Alde batetik, grabitateak eta, bestetik, sitsak egindako lanaren ondorioz, erretaularen aurreko zatiak aurrera egin du, desplazamendu bat eman da".

**Erretaula berriztu**

Miguel de Irazusta arkitektoak 1736an hasi eta 1742 urtean amaitu zuen erretaula monumentu nazionala denez, egin beharreko lan guztiak Diputazioaren baimenarekin egin behar dira. Dagoeneko Diputazioan arkitektura lanez arduratzen den Jesus Etxezarreta eta Xabier Martiarena Artelekuko errestaurazio arduraduna Santa Marinan izan dira erretaula aztertzen eta parrokian Diputazioko txostenaren zain daude. Azkoitiaren arabera, "alde batetik, erretaula ondo finkatu beharra dago eta, bestalde, zutabe atzean dauden pilastrak desmontatu egin beharko dira ondoren barru guztia fumigatzeko, sitsaren lana gelditzearren. Desmontaketa lana egiten denean horrek behartuko du erretaula berriztera. Beraz, erretaulako figura guztiak jaitsi beharrean izango gara. Irudiek, gehienbat, garbiketa lana behar dute, errekonposizio lana oso gutxi. Carmonaren figurak ondo daude". Santa Marinako erretaula Ulma enpresak jarritako 22 metroko andamioak (elizak 24,80 m.ko altura dauka) estaltzen du egunotan. Hasierako aurrekontua 3 milioi pezetakoa baldin bazen ere, dagoeneko lau gastatu dira, 2 milioi andamioarekin (hilero 700.000 pezetako kostua dauka) eta gainontzekoa fumigazioan eta elizako zoroa konpontzen.







Ezkerreko orrialdean, erretaulako irudi batzuk bere ohizko tokira bueltatzeko zain eta Xabier Azkoitia, Santa Marinako parrokoa, XVIII. mendeko erretaulan egingo diren lanak azaltzen.

Konponketa lanek uste baino gehiago iraungo dute.



POL-POL ARGAZKI TALDEA

**Barroko garaikoa**

Esan bezala, Santa Marinakoa XVIII. mendeko erretaula barroko ederrenetakoa da. Xabier Azkoitiaren hitzetan, "Miguel de Irazusta arkitektoak orohar erretaulak trazatzen zituen. Santa Marinako kasuan, bere tailerra ekarri zuen obra egiteko. Dekorazio bikainekoa, erretaula eredu honen prototipoa Santa Marinakoa da. Beste denak honen kopia dira, bai Irazustarenak eta bai ondorengo guztiak. Europa mailan ere balio eta neurri honetako oso erretaula gutxi dago". Idiazabal, Segura edo Alkizako erretaulak ere Irazustarenak dira. Santa Marinako eskultura multzoa, berriz, Salvador Carmonarena da; "XVIII. mendeko Espainian eta barroko garaian egon zen eskultore onenarena beharbada. Carmonak egin zituen lan guztien gailurra hemen dago, bere lanik onena Santa Marinan dago zintzilikaturik. Hori ezin da edozein modutan tratatu, kontu handiarekin ibili beharra daukagu. Oraindik ere aurrekontua zehazteke dagoen arren, Diputazioak ordainduko du lanen zati bat. Erretaula berezia denez, konponketak plan berezia eskatuko du eta uste dugu Diputazioan gai honekin nahiko sentsibilizatuta daudela" diosku Azkoitiak.

**Diputazioan arkitekura lanez arduratzen den Jesus Etxezarreta eta Artelekuko errestaurazio arduraduna den Xabier Martiarena, Santa Marinan izan dira erretaula aztertzen**

**99ko Gabonetarako**

Santa Marinako parrokiak erretaulan egin beharreko lanak beste lan batzuk egiteko aprobetxatuko du. Martxoan parrokiako asanblada egin nahi da egoera zein den azaldu eta egin beharreko lanak zehazteko. Xabier Azkoitiak aurreratu digunez, "erretaulari muturra sartzeak behartu egingo gaitu bukatzeke dauzkagun beste gauza batzuk egitera. Egin beharreko lanak aprobetxatuz, aktuazio oso bat egin nahi dugu. Esate baterako, berogailuaren irteera erretaula azpian dago eta hotz-bero horrek dilatazioa sortzen du. Berogailuari kanalizazio berria topatu beharko diogu. Bestalde, Santa Marinak 125w-tan dauka oraindik argia eta instalazio berria jarri beharko da; Santa Marinako ingurua txukuntzeko (Katabia aldea, batez ere) Udalarekin ere egon nahi dugu. Parrokian, kontseilu pastoralean zein komisio ekonomikoan horiei ekiteko borondatea dago, uste dugu orain dela momentua. Lan guztiak egiteak zazpi hilabete emango digu gutxienez. Horrek ez du esan nahi, dena den, zazpi hilabetez eliza itxita egongo denik. Datorren urteko Gabonetarako bukatu nahiko genuke". B

# Labegaraietako futbito txapelketa

## partiduak

**Zapatuan barruan**

| | |
|---|---|
| **09:00:** Amilotx-Buya | **Jakina PT** |
| **10:00:** HHH-Jakina Patxaran Team | **Amilotx** |
| **11:00:** Agirrebeña Jatetxea-Moskis | **HHH** |

**Zapatuan kanpoan**

| | |
|---|---|
| **16:00:** Patatus-Amozkibar | **Pagomendi** |
| **17:00:** Pagomendi-Errotagain | **OH Zerezos** |
| **18:00:** Jauja OH Zerezos-Ortzi | **Errotagain** |

**Domekan barruan**

| | |
|---|---|
| **09:30:** FAC-Txipiron | **Ezinleike** |
| **10:30:** Ezinleike-Guadalest | **Txipiron** |
| **11:30:** Uve Bikoitza-Arbe Kirolak | **Usoa** |
| **12:30:** Usoa-Sirimiri Eri | **Arbe** |
| **16:00:** Tom Cat-Xurrupak | **Bayer** |
| **17:00:** Bayer-Artusamak | **Tom Cat** |
| **18:00:** Bildurbarek-Canlejas | **Shaktale** |
| **19:00:** Shaktale-A ze Flaxa Etxagi | **Bildurbarek** |
| **20:00:** Pinturas Bergara-Mo(ko)lotov | **A ze Flaxa** |

**Domekan kanpoan**

| | |
|---|---|
| **09:30:** Agiñaspi-Igandekoak | **Etengabe** |
| **10:30:** Komendo Piperrak-Etengabe | **La Juve** |
| **11:30:** La juve-SLP | **Ufala** |
| **12:30:** Irubide Jatetxea-Ufala | **SLP** |

## argi!

### Oporretan jokatuko ez dutenentzat deia

Abenduaren 26 eta 27an, eta urtarrilaren 2 eta 3an partidua ez jokatzea erabaki duten taldeeek, asteartea baino lehen Antolaketa Batzordeari jakinarazi beharko diote. Bestalde, aktetan erabakia argi adierazita utzi beharko dute.

## jokoz kanpo



**SERGIO RIPA**
**Arbe Kirolak**

**G.** Zer dela eta Arbe kirolak?
**E.** Legazpiako kirol denda bat da.
**G.** Taldean Legazpikoak zaudete?
**E.** Legazpiarrak, Urretxu, Zumarraga eta bergarararrak baita. Gure artean ezagutzen ginen eta elkarrekin jokatzea erabaki genuen.
**G.** Urola kosta bailaran egiten dira horrelako txapelketarik?
**E.** Bai, baina motzagoak izaten dira. Astebete baino gehiago ez dute irauten eta futbitoan aritzea gustoko dugunez...
**G.** Taldea zenbat urte txapelketan?
**E.** Bi urtez.
**G.** Sailkatuko zaretelakoan?
**E.** Ondo gabiltzala. Une honetan B multzoan, bigarren gaude sailkapenean. Sailaktuko garela uste dut.
**G.** Zein postutan jokatzen duzu?
**E.** Tokatzen den tokian. Duela bi urte atezain lanetan ibili nintzen. Aurten atezain finkoa daukagu eta batzutan aurrean eta bestetan atzean jokatzen dut.
**G.** Zein taldetakoa zara?
**E.** Errealekoa.
**G.** Jokalari bat?
**E.** Guztiak atsegin ditut.
**G.** Zer aipatuko zenuke Madrilen gertaturikoaren inguruan?
**E.** Ez daukat hori deskribatzeko hitzik.

## gora eta behera

### Ezinleike eta Arbe bikain

Ezinleike taldea 3. postutik lehenda[...]kora igo da. Bestalde, Arbe Kirolak ta[...]deak Tom Cat indartsuari irabazi zion.

### Seriotasun ezak zigorra era[...]gin die

Antolaketa Batzordeak Pinturas Bergara[...]ko bi jokalariri partiduan zehar arbitro[...]ren aginduei kasu ez egiteagatik eta se[...]riotasun eza erakusteagatik partidu ba[...]teko zigorra ezarri die.

## emaitzak

Tom Cat Argandolas-Arbe Kirolak
Azpeitxi Jatetxea-OH Zerezos
Agiñaspi-Moskis
Ezinleike-Sirimiri Eri
Ion Autoak-Artusamak
Irubide Jatetxea-Urrutxurtu
Pinturas Bergara-Patatus
HHH-Agiñaspi
Moskis-Ufala
Shaktale-Mongatxurrak
Bildurbarek Opel/Lam-Azpeitxi Jatetxea
Txipiron-La Juve
Amilotx-Mo(ko)lotov
Ari Ari-Bayer
Usoa-Etengabe
Igandekoak-Matxakategi
Agirrebeña Jatetxea-Ezinleike
Sirimiri Eri-Xurrupak
Uve Bikoitza-Guadalest
Buya-Amozkibar
SLP-Komando Piperrak

## sailkapenak

**Lehen maila**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | A Ze Flaxa Etxagi | **20** | 9 |
| **2.** | Pagomendi | **19** | 8 |
| **3.** | Errotagain | **17** | 9 |
| **4.** | Azpeitxi Jatetxea | **16** | 9 |
| **5.** | Ortzi | **11** | 9 |
| **6.** | Bar Canalejas | **10** | 9 |
| **7.** | Jauja OH Zerezos | **9** | 9 |
| **8.** | Bildurbarek Opel/Lam | **9** | 9 |
| **9.** | Mongatxurrak | **8** | 8 |
| **10.** | Shaktale | **4** | 9 |

**A multzoa**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Artusamak | **28** | 10 |
| **2.** | FAC | **27** | 10 |
| **3.** | Txipiron | **21** | 10 |
| **4.** | Usoa | **18** | 10 |
| **5.** | Urrutxurtu | **16** | 10 |
| **6.** | Komando Piperrak | **14** | 10 |
| **7.** | Etengabe | **13** | 11 |
| **8.** | Irubide Jatetxea | **6** | 9 |
| **9.** | La Juve | **5** | 8 |
| **10.** | Ion Autoak | **5** | 10 |
| **11.** | SLP | **-1** | 10 |

**B multzoa**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Guadalest | **28** | 11 |
| **2.** | Arbe Kirolak | **25** | 11 |
| **3.** | Tom Cat Argandolas | **22** | 11 |
| **4.** | Moskis | **21** | 11 |
| **5.** | Uve Bikoitza | **21** | 11 |
| **6.** | HHH | **19** | 10 |
| **7.** | Ufala | **18** | 11 |
| **8.** | Agiñaspi | **11** | 11 |
| **9.** | Buya | **10** | 11 |
| **10.** | Pinturas Bergara | **8** | 11 |
| **11.** | Amozkibar | **6** | 11 |
| **12** | Patatus | **1** | 10 |

**C multzoa**

| | | P |
|---|---|---|
| **1.** | Ezinleike | 28 |
| **2.** | Sirimiri Eri | 25 |
| **3.** | Xurrupak | 24 |
| **4.** | Bayer | 20 |
| **5.** | Jakina Patxaran Team | 16 |
| **6.** | Agirrebeña Jatetxea | 15 |
| **7.** | Ari Ari | 11 |
| **8.** | Matxakategi | 10 |
| **9.** | Mo(ko)lotov | 10 |
| **10.** | Amilotx | 7 |
| **11.** | Igandekoak | 8 |

# Bergarako
# OSASUN GIDA

■ **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behea. 943 76 70 67, mobila: 907 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika).** Koldo Eleizalde 28. 943 76 27 97, mobila: 908 87 68 47 ■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.** S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **IRIZAR Juan Mari.** Boni Laskurain 4, behea. 943 76 56 57 ■ **DERMATOLOGOA: GARCIANDIA Cristina.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 15 74 • **AZPEITIA Irune.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 20 51 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13 • **PAYROS Aitziber** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 50 ■ **OTORRINOLARINGOLOGIA: IGARTUA Julian.** Barrenkalea 35, 1-ezkerra. 943 76 70 91 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBE Edurne.** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ezkerra. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK: FERNANDEZ J.R.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 • **PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 7630 76

# ESKOLA KIROLA

## Karteldegia

**SASKIBALOIA**

**Alebin mailako neskak**

**11:30:** M Lagundia-San martin

**12:30:** Aranzadi 15-Elgeta

**12:30:** Aranzadi 14-Antzuola

*Zapatuan, M Lagundian*

**Alebin mailako mutilak**

**09.30:** San Martin-Aranzadi 13

**09:30:** Aranzadi 11-Antzuola

**10:30:** Aranzadi 10-Aranzadi 8

**10:30:** Elgeta-M Lagundia A

**11:30:** M Lagundia B-Aranzadi 9

*Zapatuan, M Lagundian*

**Infantil mailako mutilak**

**12:00:** San Biator A-Aranzadi

*Zapatua, San Biatorren. Arrasate*

**FUTBOLA**

**Infantil mailako mutilak**

**09:00:** M Lagundia-Ipintza DBH

**10:30:** Aranzadi- Antzuola

*Zapatua Ipintzan*

**Infantil mailako neskak**

**10:30:** Torrebaso-Aranzadi

*Zapatua. Almenen*

**ESKUBALOIA**

**Benjamin maila**

**10:00:** Aranzadi 6-Antzuola A

**10:00:** Aranzadi 5-Aranzadi 1

**11:00:** M Lagundia E-Aranzadi 4

**11:00:** Antzuola B-M Lagundia D

**12:00:** San Martin A-San Martin B

**12:00:** Aranzadi 2-M Lagundia B

*Zapatuan Aranzadi Ikastolan*

Atsedena Aranzadi 3

eta M Lagundia A

**Infantil mailako mutilak**

**11:00:** Txantxiku-Aranzadi

*Zapatuan, Olaiturrin. Oñati*



Entrenamendua hasi aurretik Realekoak Mariaren Lagundiko ikasleekin atera zuten argazkia

# A ze zoramena! Reala Bergaran!

**Realeko talde** nagusiak Agorrosinen egin zuen goizeko entrenamendu saioa eguaztenean. Herriko ikastetxeetako haurrek, euren idoloak, futbol izarrak, gertu-gertutik ikusteko eta ikutzeko aukera izan zuten.

Zoramena izan zen nagusi Agorrosinen. Realeko jokalariek zelaia zapaltzearekin batera, bertara hurbildutako gaztetxoek argazki kamara eta boligrafoak poltsikoetatik atera eta ahalik eta sinadura eta argazki gehien lortzen ahalegindu ziren.

Realeko jokalariek ordu eta erdiko entrenamendu saioa egin zuten 10:30etatik aurrera eta, ondoren, Udaletxera joan ziren zuzendaritza oso-osoarekin, beren posterraren aurkezpen ofiziala egiteko. Bertan, Luis Urangak, Vitoriano Gallastegi alkateak eta Pepsi enpresa babeslearen komunikazio arduradunak posterraren nondik-norakoak eman zituzten. Udaletxea eta San Pedro eliza agertzen dira posterreko argazki nagusian. Laureaga dorrea, Usondo etxea eta Errekalde jauregia ere agertzen dira behealdeko argazkietan.

Aurkezpena amaitutakoan, Realekoak Sagarpe elkartera joan ziren entrenamenduak eragindako gosea asetzera. Ondoren, jokalariak Donostiarantz abiatu ziren. B



Entrenamendu saioko une bat.


Komunikabideak ere ugari izan ziren Agorrosinen.





Luis Uranga, Realeko presidentea, Vitoriano Gallastegi, alkatea, eta Agustin Aranzabal Realaren poster ofiziala eusten. Realak 70.000 ale banatuko ditu. Bergaran, Udaleko Kirol Zerbitzuan daude eskuragai.

Argazkiak, autografoak... dena nahi.





Realeko taldea Sagarpe elkartean pintxoak jaten.



# KARTELDEGIA

## FUTBOLA

**Bergara-Baskonia**

Preferente maila

Zapatua. 15:30. Agorrosin

**Bergara- Sporting Herrera**

Infantil maila

Zapatua. 11:15. Ipintza

## PILOTA

**DV TXAPELKETA**

**• Domingez eta Baez**

**Sueskun eta Mendiluze**

Jubenil maila

**• Chaffe eta Jaio**

**Bicente eta Gastezi**

Afizionauak

*Sarrera 300 PTA*

*Eguakitza. 20:00. Pilotalekua*

## SASKIBALOIA

**Bergara-Añorga**

Jubenil mailako neskak

Zapatua. 12:15. Kiroldegia

**Bergara-BKL**

kadete neskak

Domeka 12:15. M Lagundia

**Bergara-David Rioja**

Senior maila

Zapatua 19:00. Kiroldegia

## ESKUBALOIA

**Bergara-Urnietako**

Jubenil mailako neskak

Zapatua. 16:00. Kiroldegia

**Iraundi-Ormaiztegi**

Senior maila

Zapatua. 17:30. Kiroldegia

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

***Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!***


**1. ETXEBIZITZAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**3. LOKALAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**4. LANA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**6. AUTOAK/ MOTOAK**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**8. DENETARIK**
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak


## 1. ETXEBIZITZAK

### Saldu

Osintxu. 943 76 49 74.

S. Lorentzo. 943 76 31 16.

Osintxu. 939 93 68 41.

Pisu amueblatua Antonion. 943 76 56 20.

Pisu amueblatua Basarten. 943 76 32 90.

Aranerreka. 943 76 06 52.

S. Arrieta. 943 76 47 86.

Bolu. 943 76 01 80.

Basarte. 943 76 32 91.

Toki-Eder. 943 76 51 33.

Aranerreka. 910 091 861.

Matxiategi (garajearekin). 943 76 08 51.

San Lorentzo. 943 76 48 39.

### Errentan hartzeko

Bi neskak pisu bat hartuko genuke alokairuan Bolun: 943 76 56 03.

Pisua hartuko genuke alokairuan: 945 46 58 36.

## 2. GARAJEAK

### Saldu

Garajea salgai Boni Laskurainen. 943 76 47 86.

B. Laskurain. 943 76 17 84.

Matzerreka. 945 23 48 07.

Artzamendi. 943 76 06 25.

Aranerreka. 943 76 28 07.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Zurradero. 943 76 02 89.

K.Gallastegi. 943 76 27 61.

Garaje bikoitza S. Lorentzon. Telefonoa: 943 76 58 00.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Ibargarai. 943 76 72 17.

Ibargarain salgai edo alokairuan. Telefonoa: 943 76 20 07.

### Errentan emateko

Garajea, 2. solairua, alokairuan Boni Laskurainen. 943 76 28 05 nahiz 943 76 26 32.

Poligonoa. 943 76 21 12.

Bolu. 943 76 55 26.

Poligonoa. 943 76 32 58.

Garajea alokairuan Poligonoan. 943 76 21 12.

### Errentan hartzeko

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan. 943 76 47 50 (Jabi).

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

## 3. LOKALAK

### Errentan emateko

100 m²ko lokala alokatzen da Kruz Gallastegin. 943 76 11.

Taberna-jatetxea alokairuan. 943 76 41 71/ 76 37 80 (gauez).

## 4. LANA

### Eskaintzak

Emakumea etxez etxe plantxatzeko eskaintz... da. 943 76 26 73.

Neskak haurrak zaindu edo denda/bulego bat... an lan egingo luke. 943 76 26 82/76 57 3...

Neska batek, goizez, haurrak zaindu edo etxe... ko lanak egingo lituzke. 943 76 46 07.

Esperientziadun neska batek helduak zainduko lituzke. 943 76 32 16.

Neska edozein lanetarako prest. 943 76 35 3...

Erizain titulatuak gaixoak, zaharrak edo haurrak zainduko lituzke. 943 76 37 99.

Etxeko lanak egin edo umeak zainduko nituzke egun erdiz. 943 76 25 8...

Neskak etxeko edo sukaldari lanak egingo lituzke. 943 76 70 15.

Esperientziadun neska batek, goizez, haurrak zaindu edota etxeko lanak egingo lituzke. 943 76 72 31.

### Eskaerak

Goizez, ume bat zaindu eta etxeko lanetarako emakume bat behar da. 943 76 04 73.


SEGUROS LAGUN ARO ASEGURUAK
RAC VASCO NAVARRO
**AGENTEA-DELEGATUA**
*Iraegi Aseguruak*
*Ramon Maria Lili 6, behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)*
*Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54 / Faxa: 943 76 41 54*
*ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00*
*Larunbatetan: 9.00-13.00*

M
MEMESA
INDUSTRI HORNIDURAK
Tf. 943 71 24 25

Gallastegi
*Jostundegia*
Mahoizko lanerako jantziak
San Pedro ☎ 943 76 10 85

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Bergara / Arrasate / Elgoibar
**Telesforo Aranzadi 2 behea**
**943 76 21 80 / 943 76 06 37**

## 5. IRAKASKUNTZA

### Eskaintzak

Filolojia ingelesean lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. 943 76 30 28 (Ana).

Lizentziatuak mate, fisika, kimika. 943 76 70 40.

Majisteritzan diplomatuak klaseak ematen ditu. 943 76 10 17 (Rosa).

Soprano profesionalak kantu klaseak ematen ditu. 943 76 65 24.

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

Majisteritzako ikasleak OHOko klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mailara arte. 943 76 32 93.

Lizentziatuak italiera klaseak eman edo itzulpenak egingo lituzke. 943 76 65 24.

## 6. AUTOAK/MOTOAK

### Saldu

Nissan Serena (diesela) furgoneta. 1.250.000 pezeta. 630 78 10 96.

Peugeot 306 (SS-AV) salgai. 943 79 78 32.

Ford Escort XR3 egoera onean. 943 71 44 45.

Opel Ascona 1.600 (SS-W) salgai. 943 76 05 13.

Fiat Tipo (SS-AJ) kotxea salgai. 943 76 50 05.

Opel Corsa 1500 diesela. SS-AT. 943 78 71 12.

Ford Sierra (SS-S) salgai. 943 76 18 28.

## 7. ANIMALIAK

### Saldu

Pedigree oneko artzai aleman txakurkumeak salgai. 609 40 75 07.

### Bestelakoak

Txakur bat oparitzen dut. 943 76 23 83.

## 8. DENETARIK

### Saldu

Holton tronpeta salgai, (75.000 pta). Telefonoa: 943 76 48 23.

Deshumifikadorea salgai. 943 76 00 85.

Pentium-multimedia ordenagailua eta Deskjet inpresora salgai. 907 34 46 58.

Elurretako kateak Citroen AXerako. 943 76 08 25.

Arrantzarako katiuska luzeak (40 zenbakia) salgai. 943 76 26 84.

Bigarren eskuko soinua. 943 76 47 76.

Snowboard taula eta fijazioak salgai. 1,52 m. 45.000 pta. 943 76 15 35.

Edesa termo elektrikoa (30 l.). la berria, 10.000 PTA. 943 76 07 50 (Maite).

Super Nintendoa (5 joko) salgai. 943 76 49 38.

Bueltako tresilloa (tapizatua). la berria. 943 76 12 86.

Super Nintendo kontsola jokoak eta mandoak. 943 76 10 44.

Super Nintendoa (5 joko) salgai. 943 76 00 85.

Nintendo kontsola, bi mando eta 100 joku. Deitu 943 76 38 71 telefonora.

Armairu klasikoa salgai. 943 76 10 94.

Pentium 120 ordenagailua salgai. 943 76 28 34.

### Erosi

Faxa erosiko nuke. 943 76 61 15.

Musika disko singleak erosten ditut. 943 52 65 77.

Hozkailu-furgoneta salgai (lanerako aukerarekin). 910 04 23 69.

### Galdu

Reebok motxila eta 4. mailako liburuak eta karpeta galdu nuen Plazan. 943 76 44 95.

### Aurkitu

Urrezko aliantza topatu dut, 9-9-64 fetxa eta inizialekin. 943 76 17 18.

## 9. HARREMANAK

### Kontaktuak

65 urteko gizonezko batek emakume bat ezagutu nahi luke harreman serio bat hasteko. 943 76 30 27.


**Langai**
Euskal Lan Zerbitzua

**DELINEANTEA**
Donostialdea. 14633/4

**KUTXAZAINA**
Bilbo. 14707/2

**FRUTA-SALTZAILEA**
Durangaldea. 14908/2

**ARRAIN-SALTZAILEA**
Bilbo. 14918/3

**GARBIKETARAKO PERTSONA**
Bilbo. 15174/4

**ENKOFRATZAILE 2**
Bilbo. 15181/3

**INJINERUAK**
Hernani. 15194/1

**MANTENIMEN-DURAKO ARDURADUNA**
Hernani. 15196/4

**ELEKTRIZISTA 2**
Bilbo. 15214/4

**TXARKUTEROAK**
Ibai ezkerraldean. 15237/2

**TXARKUTEROAK**
Ibai ezkerraldean. 15240/2

**FRUTA-SALTZAILEA**
Ibai eskuinaldea. 15238/1

**INJINERU TEKNIKOA**
Deba Behea. 13873/1

**ESTETIZISTA-FISIOTERAPEUTA**
Gasteiz. 14595/2

**JANGELARAKO ZERBITZARIA**
Ibai eskuinaldea. 14970/7

**Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**
LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

PERTSONA GAZTEA
behar da taberna batean lan egiteko
943 76 59 19

Biko
BOKATEGIA
Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerra.
Tf. 943 76 71 19

EDEL
TAPIZDENDA
*Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu*
**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.**
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
**Bidekurutzeta 14 BERGARA**

IGELTSERITZA
BIAK, S.L.
IGELTSERITZA
A. Fleming 5
BERGARA
Mobilak:
907 44 50 38
907 46 57 38

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
*Sukalde eta bainu enzimerak*
Urarte 8 BERGARA
☎ 943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

# Bergarako Orfeoiaren 75. urteurreneko disko konpaktoa Gabonetako kontzertuan salgai

## Urteurrena ospatzeko argitaratuko den lehen diskoan 17 kantu jasotzen dira

**Bergarako Orfeoiak 75. urteurrena ospatzeko kaleratuko duen lehen disko konpaktoa aurkeztu zuen joan zen martitzenean Kultur Etxean. Diskoa zapatuan, Gabonetako kontzertuan, jarriko da salgai 2.000 pezetan.**


David Azurza eta Mila Andueza, Orfeoiko zuzendaria eta presidentea diskoaren aurkezpenean.

Platinozko ezteiak ospatzeko bereziki Orfeoiarentzat konposatutako obrak edota okasiorako moldatutakoak dira disko konpaktoan biltzen direnak. Guztira 17 pieza jaso dira ia 65 minutuko CDan.

Grabazioak 1997ko uztailetik aurtengo azarora bitartean egin dituzte. Gehiena Bergaran grabatu dute: San Pedron, Santa Marinan, Labegaraietako elizan, Mizpirualden..., baina Tolosan edota Miramonen hartutako soinuak ere jaso dituzte. Grabaketa arduraduna Aus-Art records disketxeko Juan Rekarte izan da.

Diskoaren 1.000 kopia kaleratu dira eta Gabonetako kontzertu egunean Udal Pilotalekuan erosten ez dutenek honako toki hauetan eskuratu ahal izango dute, baina 2.200 pezetaren truke: Bilintx, Euskadiko Kutxa, Musika Eskola eta Kultur Etxea; Orfeoiko kideek ere salduko dute konpaktoa.

Grabazioan Opus III Percussion Ensemblek, Bergarako Orkestra Sinfonikoko musikari batzuk eta Orfeoi txikiak ere hartu dute parte. Orfeoi txikiak, esaterako, J.C. Perezen "Lau Teilatu" kantatzen du Bergarako Orkestra Sinfonikoko kide batzuen laguntzaz.

Orfeoiko kideen asmoa da 75. urteurreneko ospakizunen amaieran, datorren urteko irailean, beste disko konpakto bat ateratzea. Amaiera ekitaldian Miguel Gonzalez Bastidaren "Stabat Mater" obra eskainiko dute Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin batera. Zuzeneko emanaldian hartutako soinua jasoko du bigarren CDak. B

## Elkarri koordinakundea eta alderdi politikoak aztergai Justo Garate bekan

**Igor Lezamiz** Belarrinaga gernikarrari eman zaio 1998ko Justo Garate beka. Aurtengo edizioa soziologiako gaiei buruzkoa izan da eta irabazleak "Elkarri, bakearen aldeko koordinakundea eta alderdi politikoak Euskadin" gaiaren ingurukoa egin du.

Lau lan aurkeztu dira aurten Justo Garate bekarako. Besteek, adimena eta autoestima, Euskal Herriko sindikalgintza eta euskal kultura eta modernitatea Bergaran gaiari heldu diote. Irabazleak 920.000 pezeta jasoko ditu Elkarri eta alderdi politikoei buruzko lana egiteko.

Justo Garate bekaren zazpigarren edizioa izan da aurtengoa. Orain arte liburu bakarra argitaratu da, lehen ediziokoa, Rosa Ramos Alfarok, Nafarroako euskararen egoera demolinguistikoa eta funtzionalari buruz egindako lana. Bestalde, datorren otsailean, Mari Jose Olaziregi 1995eko bekaren irabazlearen lana argitaratuko da: "Euskal gazteen irakurzaletasuna" izenburuko azterketa soziologikoa.



Justo Garate bekako lehen liburua.

Datorren urtean ere, Gotzon Iparragirre 1993ko bekaren irabazleak egindako ikerketa argitaratuko da. Honen lana Bigarren Karlistadan, Deba bailarako agintariek eta notableek jokatu zuten paperari buruzkoa da. Hau noiz argitaratuko den jakiterik ez dago oraindik. Nolanahi ere, datorren urtean izango da. B

# Ruper Ordorikaren "Dabilen harria" Jamen

## Oñatiarrak azken diskoa aurkeztuko du gaur Bergaran, Mugalariekin batera

**Ruper Ordorikak "Dabilen harria" bere seigarren diskoa aurkeztuko du gaur, eguakitza, Jam aretoan. Oñatiarrak Mugalaris bere ohiko taldearekin joko du. Kontzertua 22:30etarako iragarri da eta sarrerak 800 pezetan jarriko dira salgai.**

Estatu Batuetan ezagututako goi mailako musikariekin, Ben Monder, Skuli Sverrison eta Kenny Wollesenekin, grabatu du oñatiarrak azkenengo iraupen luzekoa. "Inprobisatzen ohitutako musikariak dira, arlo askotan ibilitakoak, jazz musikariaren ezagupena eta rock musikariak duen jarrera dute..., eta oso ausartak dira edozein klasetako musika joterako orduan; berehala eta naturaltasun osoz sartzen dira abestian. Horren bila nenbilen, zuzenekoaren freskotasuna topatu nahi nuen" esan digu Ruper Ordorikak.

Azkarate estudioetan hartu zuten soinua eta Gironan egin zituzten nahasketak, El último de la fila taldeko Quimi Portet-en estudioan, honekin elkarlanean.



Ruperrek azken diskoa aukerztuko du gaur.

Diskoak oso harrera ona izan du, bai kritikaren aldetik eta baita zaleen aldetik ere. Harria badabilela dirudi, etengabe saltzen ari baita. "Disko batzuk kaleratzen direnean saltzen dira gehienbat eta, ondoren, gero eta gutxiago saldu eta entzuten dira. Honek, ostera, etengabe gora egin du eta disketxekoek esan didatenez egunetik egunera gehiago saltzen ari da. Ahozaho funtzionatzen ari dela uste dut. Gainera, behin baino gehiagotan entzun behar den horietakoa dela uste dut" disku oñatiarrak.

Ruper Ordorika bere ohiko mugalariekin izango da gaur Bergaran: Angel Celada (bateria), Jose Gereñu (baxoa), Javier Antoñana (kitarra) eta Nando de la Casa (teklatuak eta perkutsioa). Azken diskoko kantu gehienekin eta aurrekoetatik aukeratutako abestiekin osatuko du errepertorioa. B


MARKIEGI autoak



FIAT

Alfa Romeo

Leizeaga 1
(San Lorentzo Industri Poligonoa)
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tf. 943 76 35 09
Faxa 943 76 56 76

*Honen bidez jakinarazten dizuegu Markiegi dela Bergara eta ingururako **Fiat eta Alfa Romeoren agente berria.** Gure erakusketa ikustera gonbidatzen zaitugu. Zatoz eta ezagutu itzazu Fiat eta Alfa Romeo modelo berriak, tragotxo bat eta mokadutxo bat hartzen duzun bitartean.*

***Lekua:** markiegin, IAT/ITVren parean*
***Eguna:** martitzenean, abenduak 22*
***Ordua:** 19:00etan.*

*Zuen zain gaituzue!*

## denborapasa / LUMA

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | | | | | | | | | |
| 3 | | | | | | | | | |
| 4 | | | | | | | | | |
| 5 | | | | | | | | | |
| 6 | | | | | | | | | |
| 7 | | | | | | | | | |
| 8 | | | | | | | | | |
| 9 | | | | | | | | | |
| 10 | | | | | | | | | |

### Ezker eskuma

1. Heldua denaren nolakotasun. 2. Arauen multzo.Lehenengoa. 3. X. hilabetea. Emakume izena. 4. Istu, listu. Joaki naiz. Gizon izena. 5. Eguzkia. Ez on. 6. Musika nota. Portua. Alkoholen bukaeran. 7. Gauerokoa. Tona. Elkartu. 8. Ore gozoak, uztai txikiaren itxurakoak. 9. Nafarroako udalerria. Bokal errepikatua. Bat. 10. Luzera-neurria. Euskal probintzia.

### Goitik behera

1. Hautatzeko eskubidea dutenak. 2. Urrikalkorrak. 3. Bizkaieraz, gehiegi. Iodoa. Fruitu-mota. 4. Aintzat hartua izatea merezi dutenak. Zintzoa. 5. Utik! Oxigenoa. Emakume zahar. 6. Setati. Potasioa. Bokala. 7. ... danez, dirudienaz. Gizon izena. 8. Asiako estatua. Bihia. 9. Uranioa. Alea ehotzeko tresna. Boroa. 10. Gizaki txiki. Bizkaieraz, azeria.

### Soluzioa

Ezker eskuma

Heldutasun. 2. Arautegi. A.
Umi. Miren. 4. Tu. Noa. Iro.
Ekia. Txar. 6. Si. Kaia. Ol.
Loa. T. Batu. 8. Erroskilak.
9. Arano. Ee. I.
10. Kana. Araba.

Goitik behera

Hautesleak. 2. Errukiorra.
Iar. I. Aran. 4. Duinak. Onak.
Uel. O. Atso. 6. Temati. K. A.
Agi. Xabier. 8. Siria. Alea.
U. Erota. B. 10. Nano. Lukia.

## bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

***1920. urteko hauteskundeetan Bergarako lehen alkate abertzalea hautatu zuten. Nor izan zen?***

## galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Noiz izango dira Bai Euskarari kanpainako amaiera jaialdiak?
A- Abenduaren 26an
B- Abenduaren 24an
C- Abenduaren 22an

2. Zein da Ruper Ordorikaren azken diskoaren izenburua?
A- Badabil harria
B- Dabilen harria
C- Dagoen harria

3. Ze argazki jarri dute Realaren 1998-99 denboraldiko poster ofizialean?
A- Bergarako Epaitegia
B- Bergarako Udaletxea
C- Laureaga dorrea

*Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Beheko Taberna** jatetxean izango dute afaria.*



Aurreko aleko saria, **Josune Alberdi**rentzat izan da: Leku-Berri merenderoan bi lagunendako afaria. Zorionak Josuneri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
Bonofotoa: **Santa Marina / San Kristobal**
Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-A**

**BONOFOTOA** ______________________

**GALDE DEBALDE** 1: ______ 2: ______ 3: ______

Izena-deitura: ______________ Telefonoa: ______________

*Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!*

BEHEKO TABERNA

Angiozar
Tf. 943 76 55 74

**Caceresekoa jatorriz, 1972an Bergarara etorri zen bizitzera. Ezkonduta dago, alaba bat dauka eta dagoeneko 27 urte daramatza Telefonican lanean. Horretaz gain, Santa Ana elkarteko eta Bergarako Bildumazaleen elkarteko kidea da.**

# *Antolin Marchena*



**Noiz ekin zenion txanponak eta seiluak biltzeari?**
1976an, alaba jaio zenean.
**Txanponak ala seiluak?**
Txanponak, mugatuagoa delako. Aldiz, seiluekin gehiago ikasten da.
**Zenbat txanpon dituzu?**
76tik hona Estatuan irtendako berriak. Eta 1944-75 bitartekoak, berriak zein berreginak.
**Txanpon arrarorik?**
1975eta 80 fetxa duen duro bat. Akasduna da erregearen txanponak 76an kaleratu zirelako.
**Bildumazaleena afizio garestia al da?**
Herrialde batera edota gai batera mugatuz gero, ez.
**Seiluak nongoak dituzu?**
Estatukoak eta atzerrikoak.
**Lortzea gehien kostatu zaizuna?**
1982ko mundialetarako atera zituztenak erostea ahaztu zitzaidan eta gero doblea ordaindu behar izan nuen.
**Atzerrikoak zela lortu dituzu?**
Lagunek kanpora doazenean ekartzen dizkidate.
**Kartarik bidaltzen duzu?**
Ez.
**Bildumazaleen ezinbesteko kualitatea?**
Pazientzia eta gauzak topatzen jakitea.
**Beste bildumarik baduzu?**
Bai, loteria dezimoak eta telefono tarjetak.
**Kabinetan, txanpona ala tarjeta?**
Tarjeta, garbiagoa eta erosoagoa delako eta diru gutxiago kentzen dizutelako
**Telefono mugikorrik erabiltzen duzu?**
Bai.
**Zenbat telefono dituzu etxean?**
Bi, finkoa eta inalanbrikoa.
**Erantzungailu automatikoa bai?**
Bai, Telefonicakoa.
**Noiz erabiltzen duzu telefonoa gehien?**
Gabonetan, lagunak eta familia zoriontzeko.
**Eta Gabonetako zorion txartelak bidaltzen dituzu?**
Baita.
**Txikitan zer izatea nahi zenuen?**
Abiadorea.
**Hobby bat?**
Xakea.
**Non igaroko dituzu Gabonak?**
Gabon-gaua Caceresen eta Gabon Zahar eguna hemen.
**Gabonak atsegin zaizkizu?**
Bai, elkarrekin egoteko ondo daude.
**Turroizalea zara?**
Bai, goxozalea eta umoretsua naiz.
**Opariak jaso ala egin?**
Biak.
**Loterian Gordoa tokatuz gero, zer?**
Munduari bira emango nioke.

TABERNA ZAHARRA
Jatetxea
bazkari eta afariak
Telefonoa: 943 76 21 21
ANGIOZAR

San Miguel
barnealdeen dekorazioa
Banaketa eta dekorazio proiektuak etxebizitza eta merkataritza lokaletarako
Gremioen koordinazioa

AINHOA CARAZO ITURRIAGA.
5630 elkargokidea
San Lorentzo 4. Posta kutxa 250. 20570 Bergara.
Tf. 943 76 47 90. Faxa: 943 76 01 15

AGOITZ
Tapizdenda
Leizariako San Lorentzo 25
BERGARA
Tf.: 939 84 57 47

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62



# Udal Txistulari Banda

Astelehenean, abenduak 21, betetzen dira 38 urte Donostiako Groseko frontoian laukoteen txistulari txapelketan bergararrak nagusitu zirela. Orduan Bonifazio Laskurain, Joseba Laborda, Julian Etxaniz eta Matias Azkaratek osatu zuten Bergarako txistulari laukotea.

Aste honetako argazkia ez da ordukoa, berriagoa baizik, 80ko hamarkadako lehen urtetakoa-edo. Bertan, Udal Txistulari Banda agertzen da. Irudiaren atzealdean, Lemoizen inguruko kartela ikus dezakegu eta Lemoiz ere notizia izan da egun hauetan, bertako pieza pisutsu bat Bilboraino eraman baitute, itsasuntzi Euskal Herritik kanpora eramateko.

Hauek dira argazkian agertzen direnak, ezkerretik hasita:

Ramon Etxaniz, Bixente Retegi, Julian Etxaniz eta Carlos Elortza.

**OHARRA**

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARAra bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

ORTO + LAGUN
ORTOPEDIA

**Olentzero bezala, Gabonetako oparietarako, zatoz Orto-Lagunera!**

Kontzeziño 2 • ARRASATE • Tf.: 943 79 89 34

Zumelaga
JATETXEA

**ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!**

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21


ad LAGUN GARAJEA
HELBIDE BERRIA Santalaitz 3an (IAT/ITVren ondoan) Tf. 943 76 11 20
ad LAGUN
ad PRO
Mekanika orokorra • Autoen konponketa • IATrako prestaketa • Pneumatikoak • Direkzio alineazioa


Gabon zoriontsuak izan ditzazuela denok!
Nagore eta Idurre, Ostadar ileapaindegikoak
Ostadar
ILEAPAINDEGIA
ZABALDU BERRIA
Ileapaindegi mistoa
estentsioak-makilajea-fantasia koloreak-solariuma-eta abar
Estilistak
ASTELEHEN ARRATSALDEETAN ere zabalik 15:30etatik 19:30etara
EGUAKITZETAN EGUN OSOA JARRAIAN, 8:00etatik 19:30 etara
Espoloia 4, behea. Bergara Tf. 943 76 72 76

# JAKINA

**FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakar**




JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorentzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.

Telefonoa: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.

AENOR
Produktu zertifikatua

6 URTEKO GARANTIA

**FAGOR**
**Sukaldeko altzariak**